

ARABA GARAPEN AGENTZIA SAU

2025EKO EKITALDIKO MEMORIA

1. OHARRA.- SOZIEATEAREN JARDUERA

Araba Garapen Agentzia SAU enpresa 1990eko apirilean eratu zen, Promoción de Infraestructuras Industriales Alavesas SA (PRINIA SA) izenarekin. Egun, Gasteizko Jose Landazuri kaleko 13-15 behean du egoitza. 2024ko urtarrilaren 16ko batzar orokor berezian estatutu sozialen 2. artikulua aldatzea onetsi zen; hori eta gero, sozietatearen xedea honako hau da:

"Sozietatearen helburua izango da Arabako Lurralde Historikoaren garapen ekonomikoa bultzatzea eta sustatzea, enpresa eta jarduera ekonomikoko berriak sortzea eta daudenak hobetzea edo hedatzea sustatuz.

Era berean, sozietatearen xedea izango da Arabako Lurralde Historikoaren jarduera ekonomikoa bultzatzea eta sustatzea, Arabako Foru Aldundiaren, foru erakunde autonomoen, zuzenbide publikoko erakundeen eta haien sozietateen zerbitzurako turismo eta kirol instalazioak eta azpiegiturak sustatuz, kudeatuz eta eraikiz, Arabako Foru Aldundiaren jarraibideen arabera.

Sozietatearen xedea jardun hauetan guztietan edo batzuetan oinarritu ahal izango da:

- a) Mota guztietako inbertsioak babestea, Arabako Foru Aldundiaren jarraibideen arabera, eta behar diren laguntzak ematea.
- b) Landa edo hiri izaerako lursailen jabetza, errentamendu edo lagapen tituluak erosi eta saltzea, edozein tituluren truke, baldin eta jarduera ekonomikoen garapena edo ezarpen berria errazteko erabil badaitezke, nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiak eta lotutako industria eta azpiegiturak barne, edo lurzoruko publiko industrial sortzeko erabil badaitezke.
- c) Era guztietako azterlanak egitea, hirigintza proiektuak eta lurraldearen garapen ekonomikoa erraztera bideratutako planak eta proiektuak barne, eta eskumena duen administrazioari aurkeztu ahal izango dizkio, izapidetu ditzan, dagokion foru sailarekin lankidetzan.
- d) Urbanizatzeko ekintza gauzatzea, hirigintza plangintza formulatu eta egikaritzeko beharrezkoa den edozein ekintza gauzatuz.
- e) Eraikuntza ekintza gauzatzea, mota guztietako jarduera ekonomikok hartzeko, eta hirigintza planetan aurreikusitako ekipamendu zuzkidurak egitea.
- f) Urbanizazio eta eraikuntza ekintzaren ondoriozko obrak, baterako instalazioak eta zerbitzuak garatzea, kudeatzea, ustiatzea eta mantentzea, hala nola sarbideak eta instalazio logistikoak, energia sorkuntzak, biltegiak, bulegoak, garbiketa eta mantentze lanak, etab.
- g) Enpresen saneamendu eta birmoldaketa prozesuetan parte hartzen duten alderdien ahaleginak babestea, eta haien artean jarduera komunak sustatzea, horrek enpresen lehiakortasuna indartzea dakarrenean.
- h) Aldi baterako partaidetzak hartzea arrisku kapitaleko entitateetan, inbertsio kolektiboko erakundeetan, inbertsio alternatiboko funtsetan (nazionalak zein atzerrikoak) edo, oro har, enpresen sorrera, hazkundea edo hedapena bultzatzen duten finantza erakunde eta agente parekagarrietan. Era berean, aholkularitza jarduerak egitea entitate horien inbertsioaren xede diren enpresentzat.
- i) Sozietatearen funtsezko xedea den Arabako Lurralde Historikoaren garapen ekonomikorekin lotura zuzena edo berehalakoa duen beste edozein jarduera.

Sozietatearen helburu diren jarduerak zuzenean zein zati batean nahiz osorik zeharka garatzea daude, helburu berdina edo antzekoa duten sozietateetan akzioak edo partizipazioak edukita".

Bat datoz sozietatearen jardura eta xedea.

Jarduera garatzeko, bere bulego nagusiak edukitzeaz gain, hainbat lurzati industrial ditu, Arabako Lurralde Historikoko industrialdetan kokatuak; beste higiezin batzuk ere ditu, ondoren saltzeko edo alokatzeko eraiki eta egokitzen dituenak; eta, bazkideak ekarritako lursail eta higiezinak ditu. Gainera, Fernando Buesa Arena Pabiloia izeneko kirolgunea kudeatzen du; Arabako Foru Aldundiak doan uzten du esparru hori erabiltzen.

Arabako Foru Aldundia da sozietateko akziodun bakarra, eta sozietatea Arabako Lurralde Historikoko Sektore Publiko Enpresarialaren barruan dago.

Hauek aplikatu behar zaizkio: Kapital Sozietateen Legea, zeinaren testu bateratua uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuz onartu zen, Merkataritza Kodea eta xedapen osagarriak.

Sozietateak beste enpresa batzuetan parte hartzen du, sozietate nagusiaren izaera eduki gabe. 9. oharrean zehazten dira enpresa horiek eta haiei buruzko informazioa.

2. OHARRA.- URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

a) Irudi zehatza

Erantsitako urteko kontuak sozietatearen kontabilitate erregistroetatik atera dira. Espainian orokorki onartuta dauden eta indarreko legerian jasotzen diren kontabilitate irizpideak betez egin ditu Administrazio Kontseiluak, horrela kontuek sozietatearen ondarea, finantzen egoera eta ekitaldian lortutako emaitzak zehatz-mehatz azaltzen dituztelako, bai eta ondare garbian izan diren aldaketak eta eskudiru fluxuen egoeran islatu diren fluxuak ere.

Sozietateko administratzaileek egin dituzte kontuak, eta akziodunen batzar orokorrak onartu behar ditu. Aurreikuspenen arabera, aldaketarik egin gabe onartuko dira. Aurreko ekitaldiko urteko kontuak 2025eko apirilaren 15eko ohiko batzar orokorrean onartu ziren.

Merkataritza Kodearen eta indarreko merkataritzako legeriaren arabera prestatu dira urteko kontuak, eta hauetan ezarritakoa betez: 1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kontabilitate Plan Orokorra eta Kontabilitate Plan Orokorraren Egokitzapen Sektoriala, 1994ko abenduaren 28koa, higiezin arloko enpresen Kontabilitate Plan Orokorra egokitzeko arauak onesten dituenak. Aipatutako araudia bete da, xedapen horiek aplikatu behar baitira Merkataritza Kodean, merkataritzako legerian eta indarrean dagoen planean xedatutakoaren aurkakoak ez badira.

b) Informazioa alderatzea

2023ko ekitaldiko kopuruez gainera, aurreko ekitaldikoak ere aurkezten dira urteko kontuetan, balantzearen partida bakoitzarekin, galera-irabazien kontuarekin, ondare garbian izan diren aldaketen egoerarekin eta eskudiru fluxuen egoerarekin erkatu ahal izateko.

Urteko kontuak 8/2014 Foru Dekretuak onetsitako ereduaren arabera aurkeztuko dira. Erkagarriak dira 2024ko eta 2025eko ekitaldietako urteko kontuak.

Era berean, memoria honetan 2025eko ekitaldiari buruz ageri den informazioa 2024ko ekitaldiko informazioarekin aurkezten da, alderaketak egin ahal izateko.

c) Balioespenaren alderdi kritikoak eta ziurgabetasunaren zenbatespena

2.427.097,97 euroko finantza emaitzaren ondorioz, sozietateak 627.324,64 euroko emaitza positiboak izan ditu ekitaldian. Hala ere, ustiapen emaitzak -1.799.773,33 euroko galera ekarri du.

Ohiko jarduera babesteko, Arabako Foru Aldundiak, bazkide bakarra den aldetik, sistematikoki egiten ditu beharrezko ondare ekarpenak. Ekitaldian jasotako ekarpenak 1.064.078,00 euro izan dira; bata, 589.681,00 eurokoa, galerak konpentsatzeko, eta, bestea, kapital dirulaguntza bat, 474.397,00 eurokoa.

Aurreko ekitaldian jasotako ondare ekarpenak 1.064.397,00 euro izan dira; bata, 575.299,00 eurokoa, galerak konpentsatzeko, eta, bestea, kapital dirulaguntza bat, 489.098,00 eurokoa. Gainera, 2022an 1.650.000,00 euroko ekarpena jaso zen, Arabako Lurralde Historikoan gauzatzen ari diren sustapen ekonomikoko zenbait ekintza finantzatzeko.

Azaldutako egoeren eta ondare eta finantza egoeraren ondorioz eta Arabako Lurralde Historikoaren foru administrazioako sozietate publikoa denez gero, uste da ez dela sozietatearen jarraipenari eragin diezaiokeen arriskurik eta, beraz, egoki jotzen da, urteko kontuak egitean, lanean ari den enpresa printzipioa aplikatzea.

Erantsitako urteko kontuetan, inoiz, zuzendaritzak egindako zenbatespenak erabili dira aktibo, pasibo, diru sarrera, gastu eta konpromiso batzuk zenbatzeko. Aztertutako gertakarien kontuak egitean erabilgarri zegoen informaziorik onenarekin egin dira zenbatespen horiek; baina gerta daiteke hurrengo ekitaldietan aldatu beharra dakarten gertakariak izatea eta, orduan, zenbatespen aldaketaren ondorioak onartu behar izatea.

Zenbatespen horiek batez ere partida hauetan dute eragina:

- Aktibo jakin batzuen galeren ebaluazioa, narriatzearen ondorioz.
- Aktibo material eta ukiezinen balio bizitza.
- Horniduren kalkulua.
- Enpresa elkartuetako partaidetzen balorazioa.

d) Kontabilitateko irizpideen aldaketak eta kontabilitateko zenbatespenen aldaketengatiko doikuntzak

Ekitaldian zehar ez da doikuntzarik egin kontabilitate irizpideak aldatzearen edo kontabilitateko zenbatespenak aldatzearen ondorioz.

e) Akatsak zuzentzea

Ekitaldi honetan eta aurrekoan ez da akatsen zuzenketa ondoriozko doikuntzarik erregistratu.

3. OHARRA.- EMAITZAK APLIKATZEA

Administrazio Kontseiluak Akziodunen Batzar Orokorrean ekitaldiko emaitzen banaketa hau proposatuko du:

Banaketa oinarria	2025	2024
Galera-irabazien kontuko saldoa	627.324,64	-1.488.061,33
Erreserba bereziak	1.688.526,90	0,00
Bazkideen ekarpena	819.164,48	0,00
GUZTIRA	3.135.016,02	-1.488.061,33

Aplikazioa	2025	2024
Borondatezko erreserbak	1.688.526,90	0,00
Bazkideen ekarpenak, galerak konpentsatzeko	0,00	-689.045,79
Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak	1.446.489,12	-799.015,54
GUZTIRA	3.135.016,02	-1.488.061,33

2025ean jasotako bazkideen ekarpena aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak konpentsatzeko erabiliko da.

4. OHARRA.- ERREGISTRO ETA BALORAZIO ARAUAK

Partidak baloratzeko eta erregistratzeko aplikatu diren kontabilitateko irizpideak ondoko hauek dira:

a) Ibilgetu ukiezina

Informatika aplikazioak erosteko kostuan baloratu dira, eta bost urteko epean amortizatuko dira, aktiboa erosi den egunetik hasita.

Ibilgetu ukiezinaren amortizazioaren zuzkidura 2.105,97 euro izan zen 2024ko ekitaldian, eta 2.080,92 euro 2025eko ekitaldian.

Ez da aktibatu edo kapitalizatu partida horiei lotutako gasturik.

b) Ibilgetu materiala

Ibilgetu materialean sartutako ondasunak sozietatearen ohiko jardunari daude lotuta eta erosketa prezioan baloratu dira. Prezio horretan sartuta daude ondasuna funtzionatzen jarri arteko gastu gehigarriak.

Sozietatearen konturako aktibo horien handitzeak eta hobetzeak honela erregistratu dira: ondasunaren erosketa prezioaren balio handiago gisa; prezio horretan sartuta dago ondasuna abian jarri zen arte egondako hobekuntzen eta finantza gastuen zenbateko osoa.

Balio bizitza luzatzea ez dakarten konponketak eta mantentze gastuak galera eta irabazien kontura kargatzen dira zuzenean. Produzitzeko gaitasuna areagotzea edo ondasunen balio bizitza luzatzea dakarten zabalkuntza eta hobekuntza kostuak aktiboan sartu dira horren balio handiago gisa.

Ibilgetu materiala gerora zuzentzen da, pilatutako amortizazioarekin eta narriaduragatik gertatu diren balizko galerekin.

Amortizaziorako urteko zuzkidura metodo linealaren bidez kalkulatzen da, ondasun bakoitzerako ondorengo taulan aurreikusita dagoen balio bizitzaren arabera:

	Zenbatetsitako bizitza baliagarriaren urteak
- Eraikuntzak	33,33
- Bestelako instalazioak, tresneria eta altzariak	10
- Garraio elementuak	5
- Informazio tratamendurako tresnak	5
- Bestelako ibilgetua (garraio elementuak)	5

Ekitaldian amortizaziorako egindako zuzkiduraren zenbatekoa, 2024an, 38.518,35 euro izan zen. Ekitaldiko amortizaziorako zuzkidura 2025eko ekitaldian 40.808,63 euro izan da.

Ekitaldia bukatzean, sozietateak elementuren batek narriadurarik izan duen aztertuko du, hau da, berreskuratu daitekeen zenbatekoa kontabilitateko balioa baino gutxiago den. Kasu horretan, galera eta irabazien kontuan narriadura onartzen da. 2025eko abenduaren 31n ez zegoen inolako galerarik narriadurarengatik.

c) Higiezinetako inbertsioak

Errentatuta dauden edo errentatzeko diren edo salduz gero datozen ekitaldietan gainbalioa lortzeko diren lurrak eta eraikinak higiezinetako inbertsio moduan sailkatzen dira.

Errentamendutzat hartzen da sozietateak errentariarekin sozietatearen aktibo bat erabiltzeko eskubidea adostea. Aktiboa denbora jakin batean erabiliko da ordainketak edo kuotak jasotzearen trukean. Baina ez da finantza errentamendua izango.

Eskuratze prezioaren arabera baloratzen dira, erosketa prezioa eta eskuratzeko gastuak sartzen direla barruan. Kapitala handitzeko harpidetutako akzioak gauzeekin ordaintzeko aintzat hartu direnetan, aditu beregainaren txostenean jasotako eskriturarako balioen arabera baloratzen dira. Arabako Foru Aldundiak (sozietatearen akziodun bakarra) Fernando Buesa Arena Pabiloia izeneko kirol instalazioaren erabilera laga dio sozietateari, doan, hamabost urterako, instalazio hori kudeatu eta ustiatzeko. Instalazioaren xedeari dagokionez, lagapena Ondasun Higiezin Inbertsioen kontuan erregistratu da, sozietateak lagapen aldian lortu beharreko errenten balio eguneratuarekin, Dirulaguntza, dohaintza eta legatuen kontuan kontrapartida eginda.

Amortizazio linealaren arabera amortizatzen dira, urteko % 3ko portzentajea aplikatuz, aktiboen balio bizitzaren eta izaeraren arabera. Fernando Buesa Arena kirol instalazioaren kasuan, linealki amortizatzen da, hamabost urteko lagapen aldian kontuan hartuta.

2024ko ekitaldiko amortizazio zuzkidura 694.195,38 euro izan zen, eta 2025eko ekitaldiko zuzkidura 675.960,56 euro.

Aktiboen egoera eta haien balorazioa kontuan hartuta, amortizazioagatiko balio zuzenketaz gain, balio narriadura gehigarria erregistratzen da; izan ere, era horretako aktiboren bat merkatuko arrazoiengatik edo beste arrazoi batzuegatik narriatuta egon daitekeelako zantzuak daudela egiaztatzen da. Ekitaldian izandako balio narriadura 123.176,40 euro izan da (2024an, 147.236,63 euro). Metatutako balio narriadura 5.098.397,66 euro izan da.

d) Alokairuak

Sozietateak higiezinak erosteko aukera ematen duten errentamendu kontratuak dauzka sinaturik, errentatzaile den aldetik, eta finantza errentamendutzat jotzen dira.

Izan ere, ez dago errentariak erosteko aukera baliatuko duelako edo baliotu duelako arrazoizko zalantzarik eta, beraz, uste da aktiboaren jabetzak atxikita dituen arriskuak eta onurak eskualdatuko zaizkiola.

Jaso beharreko ordainketen balio izendunarengatik erregistratzen dira, eta, hori dela eta, kontratuek interes tasa jakin bat sorrazaziko dutela jotzen da.

Interesak galeren eta irabazien kontura egotzi dira sortu diren ekitaldian bertan, interes tasa efektiboaren metodoaren arabera.

Errentamendu operatiboko eragiketetan, errentatutako ondasunaren jabetza eta berezko arriskuak eta etekinak errentatzailearenak dira. Horri dagokionez, errentamenduaren ondorioz diren diru sarrerak eta gastuak ordaintzen diren ekitaldiko galera eta irabazien kontuari egozten zaizkio.

e) Ondare tresnak

1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kontabilitate Plan Orokorra (9. araua, finantza tresnak eta kontabilitate estaldurak) aldatzen duen urtarilaren 12ko 1/2021 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, taldeko enpresetako, talde anitzetako eta elkartuetako partaidetzak kostuko aktibo finantzarioen kategorian sailkatzen dira. Arrazoizko balioan balioztatzen dira, hau da, transakzioaren prezioan: emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa gehi zuzenean egozten zaizkion transakzio kostuak. Gero, kostuaren arabera baloratuko dira, narriaduragatik egindako balio zuzenketen zenbateko metatua kenduta.

Nolanahi ere, partaidetzen narriaduragatik egindako balio zuzenketak itzulezinak izango dira, baldin eta dirulaguntza bidez finantzatu badira.

f) Finantza tresnak

c.1) Finantza aktiboak

Kostu amortizatuko finantza aktiboak

Partida honetan erregistratu dira merkataritzako eragiketen eta merkataritzakoak ez diren eragiketen ziozko kredituak, zenbateko jakin bat dutenak, zeinetan sozietateak ordaindutakoa eta eratutako gordailuak berreskuratzea aurreikusten baita.

1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kontabilitate Plan Orokorra (9. araua, finantza tresnak eta kontabilitate estaldurak) aldatzen duen urtarilaren 12ko 1/2021 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, amortizatutako kostuko aktibo finantzarioen kategorian sailkatzen dira.

Hasieran eta geroago, arrazoizko balioaren arabera erregistratzen dira: transakzioaren prezioa gehi zuzenean egotzi daitezkeen kostuak. Gero, kostuaren arabera baloratuko dira, narriaduragatik egindako balio zuzenketen zenbateko metatua kenduta.

Irizpide hau aplikatzen da gehienez urte bateko epemuga duten merkataritzako eragiketetan, kontratuzko interes tasa ez badute, epe laburrera kopuru horiek jasotzea espero baita.

Urte batetik gorako epemuga duten eragiketei, balorazio hori aplikatzen zaie, kontratuzko interes tasa esplizitua baitute. Interesak sortzen diren unean erregistratzen dira.

Ondorengo balorazioa

Kobratu beharreko mailegu eta partidak honela balioetsiko dira: beren balio nominal edo eskualdaketa prezioa, ken litekeen narriadura prezioa kontuan hartuta.

Ekitaldia amaitzean behintzat, sozietateak narriadurari buruzko testa egiten du, arrazoizko balioarekin erregistratuta ez dauden finantza-aktiboetarako. Narriadura dagoela ezarri ahal izango da, baldin eta finantza aktibotik berreskuratu daitekeen balioa liburuetan duen balioa baino baxuagoa bada. Halakorik gertatzen denean, narriadura hori galera-irabazien kontuan erregistratzen da.

Kostuko finantza aktiboak

Kategoria honetan sartutako inbertsioak kostuaren arabera baloratuko dira hasieran, hau da, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa gehi zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio kostuak. Hala badagokio, taldeko enpresei dagokienez, taldeko enpresen arteko eragiketei buruzko arauko 2. apartatuan jasotako irizpidea aplikatu beharko da, bai eta negozio konbinazioei buruzko arauan ezarritako konbinazioaren kostua zehazteko irizpideak ere.

Hala ere, taldeko, talde anitzeko edo elkartuko enpresa gisa sailkatu aurreko inbertsiorik balego, inbertsio horren kostutzat hartuko litzateke enpresak kalifikazio hori izan aurretik izan beharko lukeen kontabilitate balioa.

Hasierako balioespenean sartuko da lehentasunezko harpidetza eskubideen eta antzekoen zenbatekoa, halakorik eskuratu bada.

Ondoren, kategoria honetan sartutako ondare tresnak kostuaren arabera balioetsiko dira, narriaduragatik egindako balio zuzenketen zenbateko metatua kenduta, halakorik dagoenean.

Aktibo horiei balantzean baja emateagatik edo beste arrazoiren batengatik esleitu behar zaienean balioa, batez besteko kostu haztatuaren metodoa aplikatuko da, talde homogeneoen arabera, eta talde homogeneotzat hartuko dira eskubide berak dituzten balioak.

Ekitaldia ixtean, behintzat, egin behar diren balorazio zuzenketak egingo dira, baldin eta inbertsioen kontabilitate balioa berreskuragarria ez den ebidentzia objektiborik badago.

Arrazoizko balioko finantza aktiboak, ondare garbian aldaketak sortu dituztenak

Finantza aktibo bat kategoria honetan sartuko da, finantza aktiboaren kontratu baldintzek, zehaztutako datetan, eskudiru fluxuak sortzen dituztenean, eta fluxu horiek printzipalaren kobrantzak eta interesak baino ez direnean ordaintzeke dagoen printzipalaren zenbatekoaren gainean, eta ez bada mantentzen negoziatzeko eta ez badagokio kostu amortizatuko aktiboen kategorian sailkatzea.

Kategoria honetan sartutako aktibo finantzarioak arrazoizko balioan balioetsiko dira hasieran, eta kontrako ebidentziarik ezean, transakzioaren prezioa izango da, hau da, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa, zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio kostuak gehituta.

Hasierako balioespenean sartuko da lehentasunezko harpidetza eskubideen eta antzekoen zenbatekoa, halakorik eskuratu bada.

Ondoen, euren arrazoizko balioagatik baloratuko dira, besterentzean sor daitezkeen eskualdaketa kostuak kendu gabe. Arrazoizko balioan gertatzen diren aldaketak zuzenean erregistratuko dira ondare garbian, finantza aktiboak balantzean baja ematen duen edo narriatzen den arte; une horretan hala aitortutako zenbatekoa galera-irabazien kontura egotziko da.

Hala ere, atzerri monetako finantza aktibo monetarioen kanbio diferentzien ondoriozko balio narriaduragatiko balio zuzenketak eta galera-irabaziak, azken horri buruzko arauarekin bat etorritik, galera-irabazien kontuan erregistratuko dira.

Galera-irabazien kontuan erregistratuko dira, halaber, interesen zenbatekoa, interes tasa efektiboaren metodoaren arabera kalkulatuta, eta sortutako dibidenduen zenbatekoa.

Arrazoizko balioko finantza aktiboak, galera-irabazietan aldaketak sortu dituztenak

Finantza aktibo bat kategoria honetan sartuko da, finantza aktiboaren kontratu baldintzek, zehaztutako datetan, eskudiru fluxuak sortzen dituztenean, eta fluxu horiek printzipalaren kobrantzak eta interesak baino ez direnean ordaintzeke dagoen printzipalaren zenbatekoaren gainean, eta ez bada mantentzen negoziatzeko eta ez badagokio kostu amortizatuko aktiboen kategorian sailkatzea.

Kategoria honetan sartutako aktibo finantzarioak arrazoizko balioan balioetsiko dira hasieran, eta kontrako ebidentziarik ezean, transakzioaren prezioa izango da, hau da, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa, zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio kostuak gehituta.

Hasierako balioespenean sartuko da lehenasunezko harpidetza eskubideen eta antzekoen zenbatekoa, halakorik eskuratu bada.

Ondoen, euren arrazoizko balioagatik baloratuko dira, besterentzean sor daitezkeen eskualdaketa kostuak kendu gabe. Ekitaldiko galera-irabazien kontuari egotziko zaizkio arrazoizko balioan egiten diren aldaketak.

Epe laburreko finantza inbertsioak epemugara arte mantenduko dira, eta haien balorazioa ez da hasierako balorazioarekiko desberdina izango.

f.3) Finantza-pasiboak

Kostu amortizatuko finantza pasiboak

Finantza pasibo guztiak kostu amortizatuko Finantza pasibo gisa sailkatzen dira.

Epigrafe honetan sartzen dira erosketen eta zerbitzu emateen zorrak, bai eta merkataritzakoak ez diren eragiketen zordunketak ere, sozietateak jasotako mailegu edo kreditu eragiketetatik datozen tresna eratorriak ez badira.

Zuzenean egotzi daitezkeen gastuak onartzen diren unean bertan edo geroago erregistratzen dira, arrazoizko balioan, hau da, transakzioaren prezioan. Balio hau kalkulatzeko, gainera, kontraprestazioaren balioa eransten da. Irizpide hori aplikatzen da, zeren eta pasiboak epe laburrean likidatzea espero baita edo, epemuga luzekoetan, kontratuzko interes tasa finkoa ezarrita baitute.

g) Izakinak

Abiapuntua plan partzial bakoitzaren errealitate fisikoa da.

Hori ikusita, azalera bi motakoa da: industrial eta jabari publikokoa. Biak batuta, poligonoaren azalera osoa lortzen da.

Oro har, salbuespenak salbu, industria lurzoruko lurzati garbiak Araba Garapen Agentzia SAU sozietatearen jabetzakoak dira, edo izan dira eta industriak instalatzeko saldu dira.

Azalera industrial osoa oinarritzko kontzeptua dugu izakinen balioa kalkulatzeko eta urbanizazioen kostuak egozteko.

Jabari publikoko lurzoruak laga egin behar dira, eta horrenbestez, ez dute balio inbentariagarriarik. Haien kostua industria lurzati garbien gainean egotzi behar da.

Salmenta baldintzetan eskuratutako landa lurzoruak eta lurzati eta eraikin industrialak eroste prezioan edo gauzatze balio garbian baloratzen dira (bi balioetatik txikienean, betiere).

Sozietateak lurzoruak erosi eta urbanizatzen ditu, industrialdeak eta eraikinak sustatzeko. Industrialde eta eraikin horiek eroste prezioan edo gauzatze balio garbian erregistratzen ditu (bi balioetatik txikienean, betiere). Gauzatze balio hori, batzuetan, eduki sozial eta ekonomiko zabalagoko helburuen mende dago, sozietatearen xede horrekin bat etorriz (1. oharrean aipatua). Erote prezioa gauzatze balio garbiaren arabera zuzentzeko, izakinen narriaduragatiko hornidura egiten da.

Abian edo bukatuta dauden sustapenak baloratzean, lurren eroste prezioari lurzatiak salgai jarri arteko urbanizazio gastuak gehituko zaizkio.

Erositako eta bukatutako lurzatiak erosketa prezioan balioesten dira. Sozietateak, hala ere, egin beharreko merkataritza politikarekin bat datorren balorazio irizpidea aplikatzen du, higiezinaren merkatuaren uneko egoerari jarraituz. Balorazio irizpide horrek oinarritzat hartzen du lurzoru urbanizatuaren birjarpen kostu zenbatetsia, lurzoruaren tasazio balioan oinarritua. Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko Desjabetzeen Zerbitzuak kalkulatu du tasazio balioa. Balio horri, sozietateak jasandako benetako urbanizazio kostua gehitzen zaio. Irizpide hori industrialde esanguratsuenak (Galzar, Subillabide, Casablanca eta Nanclares) osatzen dituzten lursailei aplikatzen zaie.

Balio galera handiagoa dagoela erakusten duten egoeretan, aditu independenteek egindako balorazio bat egin da, benetako balioa zehaztuz. Kontabilitate balioarekiko aldea balio narriadura erregistratuz zuzentzen da.

Irizpide hori aplikatzearen ondoriozko balioaren eta hasierako kontabilitate balioaren arteko aldea izakinen narriaduragatiko hornidura kontuan aurreikusi da.

h) Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak

h.1) Aktiboen doako lagapena

Aktiboen doako lagapenak ustiatzean lagatutako ondasunaren arrazoizko balioan haien izaeraren arabera balioesten dira, eta emaitzetara egotzen dira, modu linealean, lagapenak irauten duen aldian (hamabost urte), balio galera erregistratzen den proportzio berean.

h.2) Kapital dirulaguntzak

Kapital dirulaguntzak, bestalde, benetan emandako eta ordaindutako zenbatekoaren arabera baloratzen dira, eta balio bizitzak dirauen edo finantzatutako elementuak erabiltzen diren edo haien balioa narriatzen den aldiak aplikatzen zaizkie emaitzei. Sozietateak dirulaguntzak lortzeko behar diren betekizun guztiak bete ditu.

Harik eta dirulaguntza dagokion xederako erabil dadin ezarri diren baldintzak bete arte, jasotako edo aitortutako diru kopuruak pasibo galdagarriaren kontuetan erregistratzen dira, diruz lagundutako proiektuak gauzatu arte.

Ustiapen defizitak estaltzeko bazkide bakarrak emandako ekarpenak ez dira diru sarreratzat joko, eta zuzenean funts propioetan erregistratuko dira, betiere itzulgarriak ez badira.

i) Etekinen gaineko zerga

Mozkinen gaineko zerga kontabilitate emaitzatik abiatuta kalkulatzen da, zerga oinarriarekiko doikuntzak aplikatuta. Zerga oinarria zehaztu ondoren, karga tasa aplikatzen da, eta ateratzen den kuota sozietateak eskubidez dituen kenkariek murrizten dute, zerga arruntaren ondoriozko gastua izanik, zerga geroratuaren ondoriozko gasturik agerian utzi gabe.

Hala ere, zerga oinarria negatiboa izan da ekitaldian.

Bestalde, hurrengo ekitaldietan konpentsatu beharreko zerga oinarri negatiboetatik eratorritako zerga kredituaren eragina ez da erregistratu.

j) Diru sarrerak eta gastuak

Diru sarreren eta gastuen erregistroan sortapen printzipioa aplikatu da. Hau da, ordezkatzan dituzten ondasun eta zerbitzuen korrante erreala gertatzen denean erregistratu dira diru sarrerak eta gastuak, haien ondoriozko moneta- edo finantza korrantea edozein dela ere.

Sozietatearen ohiko jarduerari lotutako lurzatie salmentetatik datozen sarrerak ezagutzeko oinarrizko irizpidea da sarrera horiek formalizazio, eskritura edo salerosketa kontratu egokia duten ekitaldian erregistratzea. Erosleari eskualdatu zaizkio saldutako ondasunari atxikitako arrisku eta onurak; une horretatik aurrera, eten egiten da ondasun horren gaineko ohiko kudeaketa, eta horren gaineko kontrola izateari uzten zaio. Ondorioz, ekitaldi horri egozten zaizkio eragiketa bakoitzetik sortutako galera edo irabaziak, hala badagokie, 4.g) oharrean azaldutako sustapenatarako hornidura aplikatuzetik garbi. Salmenta hori egin arte, erosleak kontura entregatutako kopuruak pasiboaren kontuan erregistratzen dira (bezeroen aurrerakinak).

Sozietateak bere jardueraren ohiko garapenagatik diru sarrerak aitortzen ditu erabiltzaileekin eta/edo zordunekin konprometitutako ondasunen edo zerbitzuen kontrola transferitzen denean. Une horretan, entitateak diru sarrera baloratuko du, ondasun edo zerbitzu horien truke jasotzeko eskubidea izatea espero duen kontraprestazioak adierazten duen zenbatekoan.

Ez da diru sarrerarik aitortzen elementu homogeneoen trukeetan, hala nola amaitutako produktuen edo bi enpresaren artean truka daitezkeen salgaien trukeetan, produktua beren bezeroei emateko merkataritza lanean eraginkorrak izateko helburuarekin.

Aintzatespena

Kontratu batetik eratorritako diru sarrerak aitortzen ditu entitateak, konprometitutako ondasunen edo zerbitzuen gaineko kontrola (hau da, bete beharreko betebeharrak) bezeroari transferitzen zaionean (edo transferitu ahala).

Ondasun edo zerbitzu baten kontrola (aktibo bat) ondare elementu horren erabilerari buruz erabat erabakitzeke eta gainerako onura guztiak lortzeko gaitasunari dagokio. Kontrolak barne hartzen du beste entitate batzuek aktiboaren erabilerari buruz erabaki dezaten eta etekinak lor ditzaten eragozteko ahalmena.

Bete behar den betebehar bakoitzerako (ondasunak ematea edo zerbitzuak ematea), entitateak kontratuaren hasieran erabakiko du hartutako konpromisoa denboran edo une jakin batean beteko den.

Denboran zehar betetzen diren konpromisoetatik (oro har, zerbitzuak ematek edo ondasunak saltzetik) eratorritako sarrerak kontratu betebeharrak erabat betetzeko aurrerapen mailaren arabera aitortzen dira, betiere entitateak aurrerapen maila neurtzeko informazio fidagarria badu.

Sozietateak, hartutako konpromisoa betetzen duen heinean, berrikusi eta, behar izanez gero, aldatu egiten ditu aitortu beharreko diru sarreraren zenbatespenak. Berrikuspen horiek behar izateak ez du esan nahi, nahitaez, eragiketaren amaiera edo emaitza ezin denik fidagarritasunez zenbatetsi.

Data jakin batean entitatea ez bada gai betebeharraren betetze maila arrazoiz neurtzeko (adibidez, kontratu baten lehen etapetan), nahiz eta konpromiso hori betetzeko egindako kostuak berreskuratzea espero duen, diru sarrerak eta dagokion kontraprestazioa baino ez dira aitortzen, ordura arte egindako kostuen zenbateko berean.

Une jakin batean betetzen diren kontratu betebeharren kasuan, egikarizetik eratorritako diru sarrerak data horretan aitortzen dira. Inguruabar hori gertatu arte, produktua (ondasunak edo zerbitzuak) ekoiztean edo fabrikatzean sortutako kostuak izakin gisa kontabilizatuko dira.

Salmentagatiko edo zerbitzu emateagatiko diru sarrera gisa aldeztu aurretik aitortutako kreditu eskubidea kobratzeari buruzko zalantzak daudenean, narriaduragatiko balio zuzenketagatiko gastu gisa erregistratuko da narriaduragatiko galera, eta ez diru sarrera txikiago gisa.

Betebeharra denboran zehar betetzea

entitateak aktibo baten kontrola (oro har, zerbitzu edo produktu batena) denboran zehar transferitzen duela ulertzen da irizpide hauetako bat betetzen denean:

- a) Zordunak aldi berean jasotzen eta kontsumitzen ditu sozietatearen jarduerak ematen dituen onurak (normalean, zerbitzu bat ematea) entitateak garatu ahala, zerbitzu errepikakor batzuetan gertatzen den bezala (segurtasuna edo garbiketa). Kasu horretan, beste entitate batek kontratua bere gain hartuko balu, ez luke orain arte egindako lana funtsean berriro egin beharko.
- b) Sozietateak aktibo bat (ukigarria edo ukiezina) sortzen edo hobetzen du, eta bezeroak kontrolatzen du jarduera garatu ahala (adibidez, zordunaren eremuan egindako eraikuntza zerbitzu bat).
- c) Sozietateak aktibo espezifiko bat egiten du zordunarentzat (oro har, zerbitzu edo instalazio tekniko konplexu bat edo espezifikazio bereziak dituen ondasun partikular bat) erabilera alternatiborik gabe, eta sozietateak eskubidea du ordura arte osatu den jardueragatik kobratzeko (adibidez, zordunari iritzi profesional bat ematen dioten aholkularitza zerbitzuak).

Aktiboaren gaineko kontrolaren transferentzia denboran zehar egiten ez bada, entitateak sarrera aitortzen du, une jakin batean betetzen diren betebeharrarako ezarritako irizpideei jarraikiz.

Betebeharra denboraren une batean bete izanaren adierazleak

Zordunak aktiboaren kontrola lortzen duen une zehatza identifikatzeko (oro har, ondasun bat), entitateak honako adierazle hauek hartzen ditu kontuan, besteak beste:

- a) Zordunak bere gain hartzen ditu aktiboaren jabetzari datxekzion arrisku eta onura esanguratsuak. Puntu hori ebaluatzean, entitateak baztertu egiten du aktiboa transferitzeko konpromisoaz bestelako betebehar bereiziren bat eragiten duen arrisku oro. Adibidez, baliteke entitateak aktiboaren kontrola transferitu izana, baina aktiboaren balio bizitzan mantentze zerbitzuak emateko betebeharra bete ez izana.
- b) Sozietateak aktiboaren jabetza fisikoa transferitu du. Hala ere, baliteke jabetza fisikoa aktibo baten kontrolarekin bat ez etortzea. Adibidez, berrerosteko akordio batzuetan eta gordailu akordio batzuetan, zordun edo kontsignatario batek aktibo baten jabetza fisikoa izan dezake, eta aktibo hori entitate lagatzaileak kontrolatzen du; beraz, aktibo hori ezin da transferituztat jo. Aitzitik, fakturazioaren ondorengo entrega akordioetan, entitateak zordunak kontrolatzen duen aktibo baten jabetza fisikoa izan dezake.
- c) Zordunak jaso (onartu) du aktiboa, kontratuko zehaztapenen arabera. Entitate batek modu objektiboan erabaki badezake ondasunaren edo zerbitzuaren kontrola zordunari transferitu zaiola adostutako zehaztapenen arabera, azken hori onartzeak ez luke eraginik izango kontrolaren transferentziari buruzko zehaztapenean. Adibidez, onarpen klausula zehaztutako tamaina edo pisu ezaugarriak betetzean oinarritzen bada, entitateak zehaztu dezake ea irizpide horiek bete diren zordunaren onarpenaren berrespena jaso aurretik.

Hala ere, sozietateak ezin badu objektiboki zehaztu zordunari emandako ondasunak edo zerbitzuak kontratuan adostutako zehaztapenak betetzen dituela, ezin izango du ondorioztatu bezeroak kontrola lortu duenik bezeroaren onarpena jaso arte.

Bezero bati produktuak (ondasunak edo zerbitzuak) proba edo ebaluazio erregimenean ematen bazaizkio eta zordun horrek ez badu kontraprestazioa ordaintzeko konpromisorik hartu probaldia amaitu arte, produktuaren kontrola ez zaio bezeroari transferitu bezeroak onartu arte edo aipatutako epea amaitu arte desadostasuna jakinarazi gabe.

- d) Sozietateak kobratzeko eskubidea du aktiboa transferitzeagatik.
- e) Zordunak aktiboaren jabetza du. Hala ere, entitateak jabetza eskubidea bezeroaren ez-betetzearen aurkako babes gisa soilik gordetzen duenean, horrek ez lioke bezeroari galaraziko aktiboaren kontrola lortzea.

Balorazioa

Ondasunen salmentatik eta zerbitzuak ematek datozen diru sarrera arruntak diruzko zenbatekoan baloratuko dira, edo, hala badagokio, haietatik datorren jasotako edo jaso beharreko kontrapartidaren arrazoizko balioan eta, kontrako ebidentziarik ezean, zordunari transferitu beharreko aktiboetarako adostutako prezioa da, hauek kenduta: entitateak eman ditzakeen deskontu, prezio jaitziera edo antzeko partiden zenbatekoa, eta kredituen nominalari erantsitako interesak. Hala ere, urtebeteko edo gutxiagoko epemuga daukaten eta kontratu interesik ez duten merkataritzako kredituetarako erantsitako interesak barne hartu ahal izango dira, diru fluxuak ez eguneratzearen ondorioa nabarmena ez denean.

Ez dira diru sarreraren barruan sartzen entitateak hirugarrenei jasanarazi behar dizkien ondasunak emateko eta zerbitzuak egiteko eragiketak zergapetzen dituzten zergak, hala nola balio erantsiaren gaineko zerga eta zerga bereziak, ez eta hirugarrenen kontura jasotako zenbatekoak ere.

Sozietateak, sarreraren balorazioan, kontuan hartzen du kontraprestazio aldakorren zenbatespen onena, baldin eta oso litekeena bada aitortutako diru sarreraren zenbatekoaren itzulketa esanguratsurik ez gertatzea, ondoren kontraprestazio horri lotutako ziurgabetasuna ebazten denean.

Arau orokorraren salbuespenez, lizentziak lagatzeko akordioekin lotutako kontraprestazio aldakorra, zeina aktibo horien salmentetan edo erabileran parte hartzeko modua baita, gertakari hauen ondorengoa denean (edo gertatu ahala) soilik aitortzen da:

- a) Salmenta edo ondorengo erabilera egiten bada; edo
- b) entitateak kontratuaren arabera bere gain hartzen duen betebeharra, zeinari kontraprestazio aldakor osoa edo haren zati bat esleitu baitzaio, betetzen bada (edo partzialki betetzen bada).

k) Hornidurak eta kontingentziak

Egoera balantzea egiteko egunean obligazioak ageri badira sozietatearen ondareari kalte eragin ahal dioten iraganeko gertakarietatik sorturik, haien zenbatekoa eta kitatzeko unea zehaztu gabeak direlarik, hornidura gisa erregistratuko dira egoera balantzean, obligazioa kitatzeko sozietateak ordaindu beharko duela jotzen den zenbateko gertagarrienaren egungo balioarekin.

Etorkizunean gauzatu ahal izateko inguruabar bat edo gehiago gertatzearen edo ez gertatzearen mende dauden eta iraganeko gertakarien ondorioz sortu diren balizko obligazioak ez dira aitortzen urteko kontuetan; memoriaren oharretan ematen da haien berri.

l) Aktiboak eta pasiboak sailkapena: korronteak eta ez-korronteak

Balantzean, aktiboak eta pasiboak korronteak eta ez korronteak izan daitezke. Aktiboak eta pasiboak korronteak izaten dira sozietatea ustiatzeko ziklo arruntari lotuta daudenean eta ziklo horretan zehar saltzea, kontsumitzea, gauzatzea edo likidatzea espero denean, edo haien epemuga, besterentzea edo gauzatzea beranduen urtebeteko epean izatea espero denean. Eskudirua edo aktibo likido baliokideak badira, urtebete baino denbora luzeagoan erabiltzeko muga ezabatuko da.

Ustiapen ziklo arrunta urte batetik beherakoa da. Dena den, Kontabilitateko Plan Orokorra higiezinaren arloko enpresei egokitze arauak aplikatzearen ondorioz, elementu bat izakin edo ibilgetu moduan atxikitze aplikatu behar den zedarritze irizpidea haxe izango da: zertarako erabiliko den elementu hori, jardueraren xedea kontuan hartuta.

m) Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokide batzuk

Kutxako eskudirua eta bankuko kontu korronteak sartzen dira epigrafe honetan, baldin eta hurrengo baldintzak betetzen badituzte:

- Eskudiru bihur daitezke.
- Erostea, gehienez hiru hilabeteko epemuga zeukaten.
- Ez dute balioa aldatzeko arrisku nabarmenik.
- Sozietatearen diruzaintzako kudeaketa politikan eta arauetan sartzen dira.

n) Pasiboak langileei epe luze egindako ordainketengatik

Sozietateak ez du erretirorako pentsio planik langileentzat, eta arlo horretako obligazioak Gizarte Segurantzak estaltzen ditu.

Plantilla egokitzean edo langileei egotzi ezin zaizkien beste arrazoi batzuk gertatzean langileak kaleratu behar badira kalte ordaina ordaintzen zaie; bada, kalte ordain horiek kalkulatzeko, lanean eman duten urte kopurua eta zuzendaritzarekin izan ditzaketen berariazko akordioak hartzen dira oinarri moduan. Kontzeptu horren zioz egindako ordainketa guztiak gastu bezala kontabilizatzen dira, kaleratzeko erabakiaren unean bertan.

o) Ingurumen izaerako ondare elementuak

Ingurumenari lotutako jardueretarako aktiboak erosten direnean, kostuak ibilgetuaren inbertsiontzat hartzen dira.

Jarduera horren inguruan egiten diren gainerako ordainketak ekitaldiko gastutzat hartzen dira.

p) Transakzioak enpresa lotuekin

Sozietateak transakzioak egin ditu lotutako enpresekin. Esanguratsuenak bere bazkide bakarrarekin (Arabako Foru Aldundiarekin) egindakoak dira. Transakzio horiek ondare eta finantza izaera izan dute batik bat.

Halaber beste transakzio batzuk egin ditu foru sektore publikoko entitateekin, eta merkatuko prezioan baloratu dira.

Sozietateak Arabako Foru Aldundiarekin dauzkan saldo zordunak kontratuko interes tasan likidatzen dira. Tasa hori alderdi biek finkatzen dute eta Aldundiak bere finantza transakzio guztietan aplikatzen du.

5. OHARRA.- IBILGETU UKIEZINA

"Aplikazio informatikoak" izeneko partidak bilakaera hau izan du:

Kostua	Euroak
Amaierako saldoa (2023.12.31)	158.445,12
- Altak	2.499,10
- Bajak	0,00
Amaierako saldoa (2024.12.31)	160.944,22
- Altak	0,00
- Bajak	0,00
Amaierako saldoa (2025.12.31)	160.944,22

Amortizazio metatua	Euroak
Amaierako saldoa (2023.12.31)	-154.671,78
- Altak	-2.105,97
- Bajak	0,00
Amaierako saldoa (2024.12.31)	-156.777,75
- Altak	-2.080,92
- Bajak	0,00
Amaierako saldoa (2025.12.31)	-158.858,67

SALDO GARBIA	2.085,55
---------------------	-----------------

Erabat amortizatuta daude aplikazio informatikoak, eta 150.539,58 euroko kontabilitate balio gordina dute (150.539,58 euro 2024ko abenduaren 31n).

6. OHARRA.- IBILGETU MATERIALA

Epigrafe hau osatzen duten partidek mugimendu hauek izan dituzte ekitaldian zehar:

Kostua	Eraikinak	Altzariak	Ekipo informatikoak	Garraio elementuak	Aurrerakinak eta uneko ibilgetua	Guztira
Amaierako saldoa (2023.12.31)	1.218.311,61	63.561,10	34.156,65	20.124,11	10.313,00	1.346.466,47
- Altak	0,00	0,00	1.011,26	0,00	0,00	1.011,26
- Bajak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Amaierako saldoa (2024.12.31)	1.218.311,61	63.561,10	35.167,91	20.124,11	10.313,00	1.347.477,73
- Altak	150.000,00	0,00	11.398,13	0,00	36.081,25	197.479,38
- Bajak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Amaierako saldoa (2025.12.31)	1.368.311,61	63.561,10	46.566,04	20.124,11	46.394,25	1.544.957,11

Amortizazio metatua eta balio narriadura	Eraikinak	Altzariak	Ekipo informatikoak	Garraio elementuak	Aurrerakinak eta uneko ibilgetua	Guztira
Amaierako saldoa (2023.12.31)	-730.458,81	-63.473,65	-29.408,34	-20.124,11	0,00	-843.464,91
- Altak	-36.549,36	-19,80	-1.949,19	0,00	0,00	-38.518,35
- Bajak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Amaierako saldoa (2024.12.31)	-767.008,17	-63.493,45	-31.357,53	-20.124,11	0,00	-881.983,26
- Altak	-37.299,36	-19,80	-3.489,47	0,00	0,00	-40.808,63
- Bajak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Amaierako saldoa (2025.12.31)	-804.307,53	-63.513,25	-34.847,00	-20.124,11	0,00	-922.791,89

GARBIA, GUZTIRA	564.004,08	47,85	11.719,04	0,00	46.394,25	622.165,22
------------------------	-------------------	--------------	------------------	-------------	------------------	-------------------

- Ibilgetu materialaren elementu guztiak sozietatearen jarduerari lotuta daude, eta ez daukate zama edo kargarik.
- 2025eko urriaren 17an, sozietateak bulegoetarako higiezin baten errentamendu kontratu bat sinatu zuen, erosteko aukerarekin, (Jose Landazuri kalea 13, Vitoria-Gasteiz). Iraupena hamar urtekoa izango da, eta edozein unetan erabili ahal izango da erosteko aukera. Kontratu osoari dagozkion eta erosketak prezioari osorik aplikatu dakizkikeen printzipalaren kuoten zenbatekoa 150.000,00 eurokoa da. Kontratuaren baldintzak eta helburua kontuan hartuta, sozietatearen ibilgetuan sartu da.
- Erabat amortizaturik daude eta erabiltzen ari dira 63.363,10 euroko balioa duten higigarriei dagozkien ibilgetuko elementuak, 27.615,60 euroko balioa duten tresna informatikoak eta 20.124,11 euroko balioa duten garraio elementuak.
- Sozietateak kontratatu dituen aseguruaren polizek balioa behar bezala estaltzen dute.

7. OHARRA.- ONDASUN HIGIEZINETAKO INBERTSIOAK

Partida honek bilakaera hau izan du:

Kostua	Lursailak	Eraikinak	Amaierako saldoa
Amaierako saldoa (2023.12.31)	21.471.809,73	19.010.906,67	40.482.716,40
- Erosketagatiko altak	312.736,00	0,00	312.736,00
- Trukearen ondoriozko altak	353.399,21	0,00	353.399,21
- Trukearen ondoriozko bajak	-353.399,21	0,00	-353.399,21
- Salmentagatiko bajak	-89.802,45	-1.015.876,37	-1.105.678,82
Amaierako saldoa (2024.12.31)	21.694.743,28	17.995.030,30	39.689.773,58
- Erosketagatiko altak	0,00	0,00	0,00
- Salmentagatiko bajak	-33.780,65	-117.798,01	-151.578,66
Amaierako saldoa (2025.12.31)	21.660.962,63	17.877.232,29	39.538.194,92

Amortizazio metatua eta balio narriadura	Lursailak	Eraikinak	Amaierako saldoa
Amaierako saldoa (2023.12.31)	-2.924.384,04	-7.678.982,63	-10.603.366,67
- Altak	-2.458,44	-812.037,07	-814.495,51
- Salmentagatiko bajak	0,00	808.224,13	808.224,13
- Balio zuzenketagatiko bajak	0,00	0,00	0,00
Amaierako saldoa (2024.12.31)	-2.926.842,48	-7.682.795,57	-10.609.638,05
- Altak	-2.458,44	-722.486,19	-724.944,63
- Salmentagatiko bajak	0,00	60.364,42	60.364,42
- Balio zuzenketagatiko bajak	0,00	0,00	0,00
Amaierako saldoa (2025.12.31)	-2.929.300,92	-8.344.917,34	-11.274.218,26

GARBIA, GUZTIRA	18.731.661,71	9.532.314,95	28.263.976,66
------------------------	----------------------	---------------------	----------------------

Ekitaldiko mugimenduak

Altak

Ez da altarik izan ekitaldian zehar.

Bajak

Baja Subillabideko industria pabiloien sustapenean integratutako 1 zk.ko industria pabiloi bat saltzeagatik. Salmenta prezioa 180.572,94 eurokoa izan da, eta emaitza positiboa 89.358,70 eurokoa.

Aktiboak

Aktibo hauek osatzen dute kontu hori:

	Lursaila	Eraikina	Guztira	Balio galera	Balio garbia
- Lurrak eta instalazioak Jundizen	1.709.870,42	0,00	1.709.870,42	-1.709.870,42	0,00
- Pabiloien sustapena Subillabiden	585.393,54	2.041.351,87	2.626.745,41	-1.086.869,56	1.539.875,85
- Industria pabiloiak Artapadura kalean (Gasteiz)	85.496,12	922.503,88	1.008.000,00	-344.356,40	663.643,60
- Industria pabiloia (Chiclana de la Frontera)	978.031,94	3.417.692,51	4.395.724,45	-2.070.336,01	2.325.388,44
- Industria pabiloiak (Chiclana de la Frontera)	678.076,31	2.369.510,01	3.047.586,32	-1.062.013,23	1.985.573,09
- Lurzatia Pedrolan (Zaragoza)	397.738,00	0,00	397.738,00	0,00	397.738,00
- Lurzatia Aguraingo industrialdean	6.474.984,80	0,00	6.474.984,80	0,00	6.474.984,80
- Lurzatia Aguraingo industrialdean	217.762,02	0,00	217.762,02	0,00	217.762,02
- Lurzatia Aguraingo industrialdean	135.637,18	0,00	135.637,18	0,00	135.637,18
- Lurzatiak Logroño (Errioxa)	4.091.409,00	0,00	4.091.409,00	0,00	4.091.409,00
Lurzatiak Miravalles kalean (Gasteiz)	543.835,79	0,00	543.835,79	0,00	543.835,79
- Lurzatiak, Legutien (Araba)	1.518.000,00	0,00	1.518.000,00	0,00	1.518.000,00
-Pabiloia Subillabideko industria gunean	2.120.100,36	6.158.819,87	8.278.920,23	-3.881.508,30	4.397.411,93
- Lursailak eta pabiloiak, Burgelun (Araba)	1.037.970,78	0,00	1.037.970,78	0,00	1.037.970,78
- Lurzatia Eskalmendin	318.489,37	0,00	318.489,37	0,00	318.489,37
- Lurzatia Aguraingo SAUI 1 eta 3 lursailen	312.736,00	0,00	312.736,00	0,00	312.736,00
- Landa finkak	455.431,00	0,00	455.431,00	-419.790,58	35.640,42
Fernando Buesa Arena pabiloia	0,00	2.967.354,15	2.967.354,15	-699.473,76	2.267.880,39
Guztira	21.660.962,63	17.877.232,29	39.538.194,92	-11.274.218,26	28.263.976,66

Hau da higiezinaren egoera:

Lursail eta eraikin industrialak

- Jundizko lursail eta instalazioak: Jundizko industrialdean dauden lurren eta instalazioen zati banaezinaren herenaren jabea da sozietatea. 55.750,62 euroko urteko kuotak jasotzen dituzte errentan. Higiezinaren egoera kontuan hartuta, haren zenbateko osoaren balio narriadura hartu da kontuan.
- Pabiloien sustapena Subillabideko industrialdean: Subillabideko industrialdean sustatutako industria pabiloien sustapenak osatzen du partida hori. Jatorrizko azalera 7.168,24 m²-koa da guztira, eta 2024ko eta 2025eko ekitaldietako errentamenduen datuak honako hauek dira:

	2025	2024
- Alokutatutako pabiloiak	14,00	15
- Alokutatutako azalera	4.259,67	4.533,56
- Alokutatutako azaleraren balioa (*)	1.239.034,88	1.421.157,51
- Errentamenduen bidezko diru sarrerak	120.650,17	124.498,99
- Lagatutako pabiloiak	3	3
- Lagatutako azalera	807,35	807,35
- Lagatutako azaleraren balioa (*)	272.350,54	272.350,54

(*) Kontabilitate balio garbia

Bi pabiloi errentan emanak daude, erosteko aukerarekin, eta erosteko aukeraren zenbatekoa guztira 153.888,78 euro dira.

Sozietateak, 2019ko ekitaldian, sustapen horretako hiru industria pabiloi Añanako Gatz Harana Fundazioari dohainik laga zizkion bost urterako, 272.350,54 euroan (kontabilitate balio garbia). Ondoren, 2023an, lagapen hori beste hamaika urte eta lau hilabetez luzatu zen

- Artapadura kaleko industria pabiloien multzoan C-2.5 izenez identifikatutako industria pabiloia, 252.000,00 euroko balio gordina (172.829,62 euroko kontabilitate balio garbia) eta 390,50 m²-ko azalera duena, Arabako Foru Aldundiari laga zaio, kontraprestaziorik gabe eta hamar urterako, 2018ko azarotik. Epe hori amaitzen denean, Aldundiak jaso zuenean zegoen egoera berean entregatu beharko du pabiloia.
- Artapadura kaleko industria guneen multzoan C-2.17 izenez identifikatutako industria nabea, 252.000,00 euroko balio gordina (172.829,62 euroko kontabilitate balio garbia) eta 390,50 m²-ko azalera duena, irabazi asmorik gabeko elkarte bati laga zaio, kontraprestaziorik gabe, elkarren segidan berritzen diren urtebeteko aldietarako.
- Artapadura kaleko industria pabiloien multzoan C-2.16 izenez identifikatutako industria pabiloia, 252.000,00 euroko balio gordina (172.829,62 euroko kontabilitate balio garbia) eta 390,50 m²-ko azalera duena, libre dago gaur egun.
- Artapadura kaleko industria pabiloien multzoan C-2.6 izenez identifikatutako industria pabiloia, 252.000,00 euroko balio gordina (172.829,62 euroko kontabilitate balio garbia) eta 390,50 m²-ko azalera duena, alokatuta dago 2027ko otsailera arte. Ekitaldiko errentamendu kuotak 11.012,16 eurokoak izan dira.
- Chiclana de la Fronteran (Cadiz) dagoen 16-UE-1 industria pabiloia (10.755,55 m²-ko azalerakoa) erosteko aukerarekin alokatuta dago. Kontratuaren baldintzak kontuan hartuta, kontabilitate balio garbia erosketari aukeraren baliora doitu zen, eta 2.287.974,68 eurokoa da. Errentamenduagatik lortutako diru sarreraren urteko zenbatekoa 65.117,00 euro izan da.
- Chiclana de la Fronteran (Cadiz) dauden 2-4-5-6 zenbakiko industria pabiloia erosteko aukerarekin alokatuta daude (azalera: 2.614,48 m²). Kontratuaren baldintzak kontuan hartuta, kontabilitate balio garbia erosketari aukeraren baliora doitu zen, eta 959.586,63 eurokoa da. Errentamenduagatik lortutako diru sarreraren urteko zenbatekoa 26.075,77 euro izan da.
- Chiclana de la Fronteran (Cadiz) dagoen 7 zenbakiko industria pabiloia erosteko aukerarekin alokatuta dago (azalera: 592,52 m²). Kontratuaren baldintzak kontuan hartuta, kontabilitate balio garbia erosketari aukeraren baliora doitu zen, eta 228.492,64 eurokoa da. Errentamenduagatik lortutako diru sarreraren urteko zenbatekoa 8.757,19 euro izan da.
- Chiclana de la Fronteran (Cadiz) dagoen 10 zenbakiko industria pabiloia erosteko aukerarekin alokatuta dago (azalera: 591,76 m²). Kontratuaren baldintzak kontuan hartuta, kontabilitate balio garbia erosketari aukeraren baliora doitu zen, eta 246.880,70 eurokoa da. Errentamenduagatik lortutako diru sarreraren urteko zenbatekoa 8.299,08 euro izan da.
- Chiclanako Badenes industrialdeko industria pabiloien multzoaren barruan daude 8 eta 9 zenbakiko pabiloia. Guztira 1.183,53 m²-ko azalera dute; 530.720,59 euroko balioa, eta alokatuta daude. Errentamenduagatik lortutako diru sarreraren urteko zenbatekoa 17.778,25 euro izan da.
- Sozietateak, 2014ko abenduan, Subillabide industrialdeko eraikuntza errentatzeko kontratua sinatu zuen. Obra hori sozietateak egin zuen. Errentamenduak 25 urte iraungo du, eta bost urteko aldietarako luzatu ahal izango da. Errentariak edonoiz baliatu ahal izango du erosteko aukera. Urteko errenta 332.000,00 euroan finkatu da eta modu sistematikoan eguneratzen da. Erosteko aukeraren ondorioetarako, hasieran 7.505.958,00 euroko balioa finkatu da, eta ekitaldi bakoitzean murriztu da higiezinaren amortizazioaren arabera; ekitaldiaren amaieran, 4.397.411,94 euroko kopuruan ezarri da. 2025eko ekitaldian sortutako kuotatan, guztira, 403.255,07 euro bildu dira.

Lurren balioa, erosteko aukeraren ondorioetarako, 1.318.002,00 euroan finkatu da. Balioaren narriadura erregistratu da, erosteko prezioaren eta lursaila erosteko aukeraren balioaren arteko aldearen arabera kalkulatu. Era berean, balio galtzearen eragina hartu da kontuan, erosteko aukeraren iraupena baloratzeko orduan, eta, hala narriadura gehigarri metatu bat erregistratu da, 2.034.790,34 eurokoa.

Eragiketa finantzatzeko, Arabako Foru Aldundiak 2.500.000,00 euroko zenbatekoa ordaindu du kapitaleko dirulaguntza kontzeptupean, baita 4.000.000,00 euroko zorpetze baimena ere, mailegu bat izenpetzeko. Ekitaldia ixtean, maileguaren saldoa 609.757,48 eurokoa zen.

- Aurreko ekitaldietan Burgelun kokatuta dauden lursailak eta pabiloiak gehitu ziren. Eraikinak eraitsi direnez, lurzorua balioa bakarrik jaso da: 1.037.970,78 euro.
- Partida hori osatzen duten gainerako lurzatiak eta eraikinak saltzeko edo alokatzeko daude eskuragarri. Kontuan hartu da Aguraingo industrialdeko finka nagusitik banatutako lursaila trukean eman dela eta trukean jasotako finkak jaso dira.

Landa finkak

Aldalur Araba SLren xurgapen bidezko bat egitearekin, gozamen eskubidea gehitu zaio Aldundiaren jabetzako zenbait landa lurren gainean, lur banku baten berezko xedeetarako. Finken balioa eta egoera honako hau da:

- Finka libreak, 545.054,12 m²-ko azalerarekin eta 70.938,06 euroko balioarekin (kontabilitate balio garbia, 34.533,46 euro).
- Errentapeko finkak, 12.154,82 m²-ko azalerarekin eta 2.816,35 euroko balioarekin (kontabilitate balio garbia, 1.106,96 euro).
- Prekarioan lagatako finkak, 1.128.839,66 m²-ko azalera eta 373.676,59 euroko balioa dutenak, balioa erabat galduta.

Fernando Buesa Arena pabiloia

2022ko ekainaren 14an, Foru Gobernu Kontseiluak erabaki zuen beste doako lagapen bat egitea sozietateari, Fernando Buesa Arena pabiloiaren kirol instalazioa ustiatzeko. Lagapenak hamabost urte iraungo du, 2022ko abenduaren 31tik aurrera, abenduaren 30eko 925/2010 Erabakiaren bidez onetsitako lagapenaren indarraldia amaitu ondoren.

2022ko abenduaren 31n, sozietatearen ordezkariak eta Saski Baskonia SADren ordezkariak erabaki zuten Saski Baskonia SADren alde hamabost urtez instalazioa erabiltzeko eskubidea ezartzea, saskibaloiko talde profesionaleko entitate horren jarduerarekin zuzenean lotutako jarduerak egiteko. Ordainetan, Saski Baskonia SADek 250.000,00 euroko kanona ordainduko dio urtean sozietateari. Lehenengo lau urteetarako indarrean dagoen zenbateko hori bosgarren urtetik aurrera berrikusiko da.

Instalazioaren erabilera lagapena Araba Garapen Agentzia SAUren aktiboan sartu da Ondasun Higiezinak Inbertsioen partidan. Eragiketaren izaera, aktiboaren xedea eta lagapen aldian lortu beharreko zenbatekoak kontuan hartuta, 250.000,00 euroko urteko kanona eta lagapenaren iraunaldia erreferentziazat hartuta baloratu da, eta lortu beharreko errentak kontratua sinatzean indarrean zegoen Euriborraren tasaren arabera eguneratu dira.

8. OHARRA.- ERRENTAMENDUAK

Sozietateak bere jabetzako higiezin errentamendu kontratuak, erosteko aukeradunak, sinatu ditu eta oraindik indarrean ditu. Kontratua amaitzen denean jabetza juridikoa errentariari eskualdatu ahal izango dio. Hortaz, atxikita dituen arriskuak eta onurak errentariari eskualdatuko zaizkiola uste da.

Kontratu horien ondorioz, 2024ko eta 2025eko abenduaren 31n honako saldo hauek zeuden oraindik kobratu gabe:

	Saldoa 2025.12.31n	Saldoa 2024.12.31n
-Epe laburrean	106.818,61	113.852,82
-Epe luzean	930.900,59	1.036.158,70
GUZTIRA	1.037.719,20	1.150.011,52

Kontratu eta saldo hauek daude ordaindu gabe:

	2025			2024		
	Epe luzea	Epe laburra	Guztira	Epe luzea	Epe laburra	Guztira
- Subillabide	192.612,26	23.560,31	216.172,57	216.172,57	23.155,09	239.327,66
- Subillabide	109.861,48	10.158,09	120.019,57	120.019,57	9.983,39	130.002,96
- Subillabide	110.632,82	10.135,91	120.768,73	120.768,73	9.961,59	130.730,32
- Subillabide	99.272,29	10.302,37	109.574,66	109.574,66	10.123,77	119.698,43
- Casablanca-Laguardia	137.817,58	32.360,64	170.178,22	170.178,22	31.564,11	201.742,33
- Barratxi	57.680,65	5.723,38	63.404,03	61.843,53	14.844,05	76.687,58
- Chiclana de la Fronterako Badenas industrialdea	223.023,51	14.577,91	237.601,42	237.601,42	14.220,82	251.822,24
GUZTIRA	930.900,59	106.818,61	1.037.719,20	1.036.158,70	113.852,82	1.150.011,52

Kontratuen alderdi garrantzitsuenak honako hauek dira:

- Sozietateak Betoñuko industrialdeko Barratxi kalean dagoen industria pabiloi bat alokatzeko kontratua sinatu zuen 2012an, hura erosteko aukerarekin, 187.679,87 euroko zenbatekoan. 2029ra arte iraungo du, eta ekitaldia ixtean erosteko aukera 63.404,03 eurokoa izango da. Ordaintzeko zain daude, eta merkataritza-zordunen kontuan erregistratutako 25.793,66 euroko kuotak mugaeguneratuta daude.
- Sozietateak Casablancako industrialdean dagoen industria pabiloi bat alokatzeko kontratu bat sinatu zuen 2014an, erosteko aukerarekin, 466.758,87 euroko zenbatekoan. 2031ra arte iraungo du, eta ekitaldia ixtean erosteko aukera 170.178,22 eurokoa izango da.
- Sozietateak 2019an Subillabideko industrialdeko lurzati baten errentamendu kontratua sinatu zuen, hura erosteko aukerarekin. Kontratuak 15 urteko indarraldia du, eta salmenta prezioa, guztira, 356.980,00 euro da. Errentariak pabiloia erosteko aukera balia dezake, une bakoitzean ordaindu gabe dagoen kapitala ordainduz; ekitaldia ixteko datan, 216.172,57 euro da haren zenbatekoa.
- Sozietateak Subillabideko industrialdean dagoen industria pabiloi bat alokatzeko kontratua sinatu zuen 2020an, hura erosteko aukerarekin. Kontratuak 15 urteko indarraldia du, eta salmenta prezioa, guztira, 160.026,00 euro da. Errentariak pabiloia erosteko aukera balia dezake, une bakoitzean ordaindu gabe dagoen kapitala ordainduz; ekitaldia ixteko datan, 120.019,57 euro da haren zenbatekoa.

- Sozietateak Subillabideko industrialdean dagoen industria pabiloi bat alokatzeko kontratua sinatu zuen 2021ean, hura erosteko aukerarekin. Kontratuak 15 urteko indarraldia du, eta salmenta prezioa, guztira, 160.026,00 euro da. Errentariak pabiloia erosteko aukera balia dezake, une bakoitzean ordaindu gabe dagoen kapitala ordainduz; ekitaldia ixteko datan, 120.768,73 euro da haren zenbatekoa.
- Sozietateak Subillabideko industrialdean dagoen industria pabiloi bat alokatzeko kontratua sinatu zuen 2021ean, hura erosteko aukerarekin. Kontratuak 15 urteko indarraldia du, eta salmenta prezioa, guztira, 160.026,00 euro da. Errentariak pabiloia erosteko aukera balia dezake, une bakoitzean ordaindu gabe dagoen kapitala ordainduz; ekitaldia ixteko datan, 109.574,66 euro da haren zenbatekoa.
- Sozietateak, 2024an, Chiclana de la Frontera udalerriko (Cadiz) Badenes industrialdean dagoen industria pabiloi bat erosteko aukerarekin alokatzeko kontratu bat sinatu du. Kontratuak 15 urteko iraupena du, eta salmentaren guztizko prezioa 254.158,28 euro da. Erosleak une bakoitzean ordaintzeke dagoen kapitalarengatik erosi ahalko du higiezina, eta ekitaldiaren itxiera datan 237.601,42 eurokoa zen.
- Hona hemen ekitaldi bakoitzean kobratu beharreko zenbatekoak:

	2025	2024
- Urtebetera arte	106.818,61	113.852,82
- 2 eta 5 urte bitartean	450.632,94	479.202,52
- 5 urte baino gehiago	480.267,65	556.956,25
GUZTIRA	1.037.719,20	1.150.011,59

- Alokairu kuoten bidez kopuru nagusia amortizatu eta interesak ordaindu dira. Kontratu bakoitzean honako interes tasa hau sortu da:

	Interes tasa
- Subillabide	1,75%
- Barratxi	2,50%
- Casablanca	2,50%
- Badenes	2,51%

Horrez gain, sozietateak higiezinaren zenbait errentamendu kontratu ditu izenpetuta, 6. oharrean, “Higiezinetakoko inbertsioak” izenekoan, adierazten denaren arabera.

9. OHARRA.- ONDARE TRESNAK

Sozietateak beste enpresa batzuetan dituen partaidetza balioengatik izandako bilakaera honako hau izan da:

Kostua	Enpresa elkartuak
Amaierako saldoa (2023.12.31)	44.853.127,91
- Altak	1.027.240,00
-Bajak	0,00
Amaierako saldoa (2024.12.31)	45.880.367,91
- Altak	474.397,00
-Bajak	0,00
Amaierako saldoa (2025.12.31)	46.354.764,91

Balio narriadura	Enpresa elkartuak
Amaierako saldoa (2023.12.31)	-19.353.982,58
- Altak	-293.214,85
-Bajak	185.324,56
Amaierako saldoa (2024.12.31)	-19.461.872,87
- Altak	-351.558,59
-Bajak	180.285,33
Amaierako saldoa (2025.12.31)	-19.633.146,13

BALIO GARBIA	26.721.618,78
---------------------	----------------------

Inbertsioak

Sozietateak Arabako Teknologia Parkea SA sozietatearen 7.777 akzio berriren harpidetza egin eta ordaindu du ekitaldian zehar; akzioak batera jaulki ziren, 61,00 euroko balio nominalarekin bakoitza, eta guztira 474.397,00 euroko zenbatekoa ordaindu zen. Ordainketa hori egiteko, sozietateak kopuru horren pareko itzuli beharrik gabeko dirulaguntza jaso du Arabako Foru Aldunditik.

Balio narriadura

Ekitaldian -171.273,26 euroko narriadura garbia erregistratu da. 2024an, narriadura garbia -107.890,29 eurokoa izan zen. Honako hau da partaidetzako sozietateen araberako banakapen zehatza:

	2025	2024
Gehikuntza		
Arabako Teknologia Parkea SA	-351.558,59	-268.537,28
Arabako Industrialdea SA	0,00	-24.677,57
Gehikuntza, guztira	-351.558,59	-293.214,85
Murrizketa		
CTV Gasteizko Garraio Zentroa SA	175.634,23	185.324,56
Arabako Industrialdea SA	4.651,10	0,00
Murrizketa, guztira	180.285,33	185.324,56
NARRIADURA/TZULTZE GARBIA	-171.273,26	-107.890,29



Partaidetzako sozietateen egoera

Arabako Industrialdea SA

- Arabako Industrialdea, SA sozietateak Arabako lurralde historikoan industria ekimena eta inbertsioa piztea eta sustatzea ditu helburu, industriak eta industrialdeak eraikitzeke lurzorua sustatuz.
- Sozietatearen egoitza: Uzbina kalea, 24 - 13 bulegoa, Jundizko Industrialdea (Gasteiz).
- Partaidetzaren ehunekoa: % 43,25
- Liburutan balioa: 3.823.210,88 euro.
- Ondare garbia, 2025eko ekitaldia ixtean:

Kontzeptua	Euroak
- Sozietatearen kapitala	12.855.624,39
- Erreserbak	286.389,09
- Emaiza negatiboak	-4.312.970,00
- Ekitaldiko emaitza (*)	10.754,00

(*) Ustiapenaren emaitza: 66.446,00 euro.

CTV Gasteizko Garraio Zentroa SA

- CTV Gasteizko Garraio Zentroa Saren xedea da Gasteizko Garraio Zentroa eta aduana esparrua sustatu, instalatu eta ustiatzea, Gasteizko salgaien trafikoa hobetze aldera.
- Sozietatearen egoitza: Lermendabide kalea, 8 – Jundizko Industrialdea. Vitoria-Gasteiz
- Partaidetzaren ehunekoa: % 39,774
- Liburutan balioa: 6.620.429,26 euro.
- Ondare garbia, 2025eko ekitaldia ixtean:

Kontzeptua	Euroak
- Sozietatearen kapitala	16.085.328,00
- Erreserbak	2.173.831,00
- Ekitaldiko emaitza (*)	725.901,00

(*) Ustiapenaren emaitza: 702.041,00 euro

- Kasu honetan, narriadura itzulera diruz lagundu gabeko ekintzetara mugatzen da.

Arabako Teknologia Parkea SA

- Arabako Teknologia Parkea SA sozietatearen xedea da enpresa ekimena eta inbertsioa bultzatzea eta sustatzea, enpresa berritzaileentzat eta teknologia handiko enpresentzat azpiegiturak eraikiz.
- Sozietatearen egoitza (bulego nagusiak) Miñako Parke Teknologikoan dago (Araba).
- Partaidetzaren ehunekoa: % 23,72
- Liburutan balioa: 15.048.958,64 euro.
- 2025eko ekitaldiaren itxierako funts propioak:

	Euroak
- Sozietatearen kapitala	81.789.288,00
- Erreserbak	-16.442.564,00
- Ekitaldiko emaitza (*)	-1.806.359,00

(*) Ustiapenaren emaitza: -2.164.340,00 euro

- Kasu honetan, diruz lagundutako akzioen narriadura itzulezina aitortzean, kontabilitate balio teorikoa baino balio handiagoko narriadura gertatzen da.

Araba Logística SA

- Araba Logística SAre xedea da logistika jardueretan erabiliko diren eraikinak ustiatzea.
- Sozietatearen egoitza: Araba hiribidea z.g., Ribabellosa.
- Partaidetzaren ehunekoa: % 13,11
- Liburutan balioa: 1.229.020,00 euro.
- Ondare garbia, 2025eko ekitaldia ixtean:

	Euroak
- Sozietatearen kapitala	1.750.005,00
- Erreserbak	14.068.776,98
- Ekitaldiko emaitza (*)	-887.078,87

(*) Ustiapenaren emaitza: -1.306.636,47 euro

Sozietateak 2.528.800,85 euroko dibidendua jaso du ekitaldian

10. OHARRA.- FINANTZA-AKTIBOAK ETA -PASIBOAK

10.a) Finantza-aktiboak

Ondoren, sozietatearen finantza-aktiboak biltzen dituzten partidak banakatuko ditugu 2024ko abenduaren 31ko eta 2025eko abenduaren 31ko datekin, enpresa elkartuetan egindako inbertsioak kontuan hartu gabe:

	2025			2024		
	Epe luzea	Epe laburra	Guztira	Epe luzea	Epe laburra	Guztira
- Ondare tresnak	236.271,70	0,00	236.271,70	218.537,05	0,00	218.537,05
- Maileguak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk	1.512.267,62	151.331,31	1.663.598,93	1.667.599,03	157.227,52	1.824.826,55
- Merkataritza zordunak eta beste batzuk	0,00	332.986,82	332.986,82	0,00	811.352,57	811.352,57
- Beste finantza aktibo batzuk	112,22	4.957.886,04	4.957.998,26	112,22	5.207.649,25	5.207.761,47
GUZTIRA	1.748.651,54	5.442.204,17	7.190.855,71	1.886.248,30	6.176.229,34	8.062.477,64

Ondare tresnak

Sozietateak guztira 0,05 euroko 60.000 akzio ditu, Stelum Foods & Tech I. S.C.R. SA Arrisku Kapitaleko Sozietatearen balio izendatua dutenak, erabat harpidetuak eta ordainduak. Kapital soziala 1.427.577,00 euro da; beraz, Araba Garapen Agentzia SAUk kapital sozial osoaren % 0,21eko partaidetza du. 2025ean 14.000,00 euroko partaidetzak harpidetu eta ordaindu ditu. Sozietateak 100.000,00 euro ordaintzeko konpromisoa hartu du

Sozietate honen xede soziala elikagaien eta edarien sektoreko enpresen kapitalean eta balio kateko elementu guztietan aldi baterako partaidetzak hartzeari dagozkion jarduerak dira, baldin eta, partaidetza hartzeko unean, ez badute kotizatzen balore burtsen lehen merkatuan edo baliokidea den beste edozein merkatu araututan. Ekitaldiaren itxierako informazio ekonomikoa honako hau da:

Kontzeptua	Euroak
- Sozietatearen kapitala	1.427.577,00
- Erreserbak	24.431.003,00
- Ekitaldiko emaitza:	-687.295,00
- Balio aldaketagatiko doikuntzak	2.427.293,00

Partaidetza horren kontabilitate balioa 57.997,39 euro da, -2.002,61 euroko balio narriadura izan baita.

Sozietateak guztira 0,10 euroko 195.000 akzio ditu, Easo Ventoures II S.C.R. SA Arrisku Kapitaleko Sozietatearen balio izendatua dutenak, erabat harpidetuak eta ordainduak. Kapital soziala 1.421.463,00 euro da; beraz, Araba Garapen Agentzia SAUk kapital sozial osoaren % 1,37ko partaidetza du. Sozietateak 300.000,00 euro ordaintzeko konpromisoa hartu du

Sozietate horren helburu soziala hazkunde potentzial handia duten enpresa berritzaileen kapitalean aldi baterako partaidetzak hartzeari dagozkion jarduerak dira, lehentasuna izanik haien eremu geografiko ez-finantzarioa eta higiezin izaerarik ez dutenak, baldin eta, partaidetza hartzeko unean, ez badute kotizatzen balore burtsen lehen merkatuan edo baliokidea den beste edozein merkatu araututan. Ekitaldiaren itxierako informazio ekonomikoa honako hau da:

Kontzeptua	Euroak
- Sozietatearen kapitala	1.421.463,00
- Aurrek. ek. emaitza negatiboak	10.008.153,00
- Ekitaldiko emaitza:	949.257,00
- Balio aldaketagatiko doikuntzak	616.531,00

Partaidetza horren kontabilitate balioa 178.274,31 euro da, -16.725,69 euroko balio narriadura izan baita.

Maileguak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk:

Hona hemen emandako maileguak:

Maileguak	2025			2024		
	Epe luzea	Epe laburra	Guztira	Epe luzea	Epe laburra	Guztira
- Higiezin salmentaren zioz geroratutako ordainketak	581.367,13	48.704,17	630.071,30	631.440,33	43.374,70	674.815,03
- Kobratzeke dauden kuotak – Finantza errentamendua	930.900,59	106.818,61	1.037.719,20	1.036.158,70	113.852,82	1.150.011,52
GUZTIRA	1.512.267,72	155.522,78	1.667.790,50	1.667.599,03	157.227,52	1.824.826,55

- Higiezinak saltzeagatik geroratutako ordainketak

Partida honetan, higiezin salmentengatik ordainketa geroratuen zenbatekoa jaso da. Kontratuak, urteko ordainketak eta interes tasak hauek dira:

	Urtea	Epe laburra	Epe luzea	Guztira	Interes tasa
Miñako pabiloia	77.828,40	48.704,17	581.367,13	630.071,30	Euribor + % 2,00
GUZTIRA		48.704,17	581.367,13	630.071,30	

Miñako pabiloiaren 2021eko salmentaren ondoriozko ordainketa geroratuak higiezinaren lehen hipotekarekin berrmatuta daude, eta beste finantza entitate batzuen zorren maila bera dute. Hamabost urtean amortizatzen da, hileko 6.105,48na euro ordainduta. Zenbateko horrek printzipalaren eta interesen amortizazioa hartzen du, eta Euribor + % 2ko interes-tasa sortzen du.

Ekitaldikako epemugak honako hauek dira:

	Euroak
- Urtebetera arte	48.704,17
- 1 eta 5 urte bitartean	215.705,58
- 5 urte baino gehiago	365.661,55
GUZTIRA	630.071,30

- Kobratzeke dauden kuotak – Finantza errentamendua

Finantza errentamenduko kontratuetatik ondorioztatzen diren eta kobratzeke dauden kuotak 8. oharrean zehazten dira.

Merkataritza zordunak eta beste batzuk

Epe laburrerako epemuga izanik, jarraian partida hau kontzeptuka banatzen da:

	2025	2024
- Merkataritzako zordunak	760.422,29	1.094.197,43
- Askotariko zordunak	9.205,30	0,00
- Administrazio publikoak (15. oharra)	7.127,25	40.936,18
- Langileak	6.663,32	3.570,00
- Balioaren narriadura	-450.431,34	-327.351,04
GUZTIRA	332.986,82	811.352,57

Beste finantza-aktibo batzuk

Partida hau honako kontzeptu hauen arabera banatu da:

	2025			2024		
	Epe luzea	Epe laburra	Guztira	Epe luzea	Epe laburra	Guztira
- Bermeak eta gordailuak	112,22	150.308,51	150.420,73	112,22	92.845,21	92.957,43
- Aplikatzeke dauden partidak	0,00	4.363,77	4.363,77	0,00	79.450,83	79.450,83
- Industrialdeen kontua	0,00	-1.425,07	-1.425,07	0,00	-209,72	-209,72
- Arabako Foru Aldundiaren kontu berezia	0,00	4.799.640,93	4.799.640,93	0,00	5.035.562,93	5.035.562,93
GUZTIRA	112,22	4.952.888,14	4.953.000,36	112,22	5.207.649,25	5.207.761,47

Araba Garapen Agentzia SAU sozietateak eskudiruko gordailu bat du Arabako Foru Aldundiko kontu orokorretan. Ez da interesik sortu ekitaldian zehar.

10.b) Finantza-pasiboak

Hau da sozietatearen finantza-pasiboak biltzen dituzten partiden banakapena 2024ko abenduaren 31n eta 2025eko abenduaren 31n:

	2025			2024		
	Epe laburra	Epe luzea	Guztira	Epe laburra	Epe luzea	Guztira
- Kreditu entitateekin zorrak	409.118,63	203.252,60	612.371,23	412.326,23	609.757,48	1.022.083,71
- Merkataritzako hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk	443.538,47	0,00	443.538,47	472.868,29	0,00	472.868,29
- Finantza errentamenduagatik hartzekodunak	13.340,82	134.469,74	147.810,56	0,00	0,00	0,00
- Beste finantza pasibo batzuk	330.331,89	1.265.787,70	1.596.119,59	342.324,07	1.495.271,18	1.837.595,25
GUZTIRA	1.196.329,81	1.603.510,04	2.799.839,85	1.227.518,59	2.105.028,66	3.332.547,25

Kreditu entitateekin zorrak

Saldoa Banco de Santander Central Hispano entitateak 2015eko maiatzaren 8an emandako kredituari dagokio. Kredituaren zenbatekoa 3.658.544,00 euro da guztira, eta Subillabide industrialdean dagoen bere jabetzako industria pabiloi bat finantzatzeko da. Horren gainean errentamendu kontratu bat sinatu da. 12 urteko epemugarekin eta hiru urteko gabealdiarekin Euribor + % 0,82ko interesa sortzen da (% 4,78 2025ean). Arabako Foru Aldundiak bermatzen du. Hauek dira zor horren epemugak:

Ekitaldia	Euroak
2026	406.504,88
2027	203.252,60
Guztira	609.757,48

Kontabilitate saldoaren barruan sortutako eta mugaeguneratu gabeko 2.531,26 euroko interesak sartzen dira. Gainera, -82,49 euroko saldoa dago kreditu txartela erabiltzeagatik.

Finantza errentamenduko kuotak

Partida honek Vitoria-Gasteizko Landazuri kaleko 13. zenbakian dagoen higiezinaren errentamendu-kuotak jasotzen ditu, erosteko aukerarekin. Hauek dira ekitaldika ordaindu beharreko kuotak:

Ekitaldia	Euroak
2026	13.340,82
2027	13.697,55
2028	14.063,82
2029	14.439,89
2030	14.826,01
2031	15.735,47
2032	18.755,41
2033	19.256,93
2034	19.771,86
2035	3.922,80
Guztira	147.810,56

Beste finantza pasibo batzuk

Partida honetan hau jaso da:

	2025	2024
- Gauzatu gabe dauden bazkideen ekarpenak	1.265.787,70	1.495.271,18
-Beste finantza-pasibo batzuk (jasotako fidantzak)	330.331,89	342.324,07
GUZTIRA	1.596.119,59	1.837.595,25

Gauzatu gabe dauden bazkideen ekarpenen partidak Arabako Foru Aldundiak Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 8ko 667/2022 Erabakiaren bidez Aiaraldeko Eskualdeko Berehalako Jarduketa Planeko ekimenak finantzatzeko emandako ekarpena jasotzen du, eta honako ekimen hauek jasotzen ditu:

- Laudio Glass Hub, 500.000,00 euroko aurrekontuarekin, jarduteko azken eguna 2026ko ekainaren 30a izanik.
- Aiaraldea Industrial Lab., 1.000.000,00 euroko aurrekontuarekin, jarduteko azken eguna 2026ko ekainaren 30a izanik.
- Industrialdeak modernizatzea, 150.000,00 euroko aurrekontuarekin, jarduteko azken eguna 2026ko ekainaren 30a izanik, otsailaren 25eko 107/2025 Erabakiari jarraituz.

Ekarpen hori bazkideen ekarpena da funts propioetarako, deskribatutako ekintzak gauzatzeko gastuak finantzatzeko, eta ezeztazina da proiektuen gauzatze mailaren arabera. Ekitaldi honetan, 229.483,48 euroko gastuak egin dira ekintza horiek gauzatzean, eta proiektuaren hasieratik aplikatutako zenbateko osoa 384.212,30 da. Beraz, 1.265.787,70 euro geratzen dira gauzatzeko.

10.c) Finantza-aktiboen eta pasiboen sailkapena

Finantza aktiboak

	Saldoa 2025-12-31n	Arrazoizko balioko finantza aktiboak, galera-irabazietan aldaketak sortu dituztenak	Kostu amortizatuko aktiboak	Kostuko finantza aktiboak	Arrazoizko balioko finantza-aktiboak, ondare garbian aldaketak sortu dituztenak
Epe luzerako finantza tresnak	1.748.539,42	236.271,70	1.512.267,72	0,00	0,00
Epe laburrerako finantza tresnak	5.434.270,49	0,00	5.434.270,49	0,00	0,00

Finantza pasiboak

	Saldoa 2025-12-31n	Kostu amortizatuko finantza pasiboak	Arrazoizko balioko finantza-pasiboak, galera-irabazien kontuan aldaketak sortu dituztenak
Epe luzerako finantza tresnak	1.603.510,04	1.603.510,04	0,00
Epe laburrerako finantza tresnak	1.137.924,24	1.137.924,24	0,00

10.d) Finantza-aktiboen izaerari eta arrisku mailari buruzko informazioa

Interes tasaren arriskua

Finantza aktiboei dagokienez, diruzaintzako soberakinak Arabako Foru Aldundian gordailututa daude, entitate horrekin adostutako interes tasarekin. Horregatik guztiagatik, ez dago interes tasaren arriskurik.

Finantza pasiboei dagokienez, interes tasak Euriborraren arabekoak dira.

Likidezia arriskua

Sozietateak bere diruzaintza Arabako Foru Aldundian eta kreditu maila handiko finantza entitateetan dauka.

Kreditu arriskua

Bezera eta zordunei kobratu beharreko kontu gehienak berme errealeko higiezin salerosketen ondorio dira.

11. OHARRA.- IZAKINAK

Izakinen kontua honela zegoen osatuta 2024ko abenduaren 31n eta 2025eko abenduaren 31n:

	2025	2024
- Landa lurrak	571.265,19	571.265,19
- Abian diren sustapenak	1.818.125,16	1.818.125,16
- Produktu bukatuak	17.411.584,72	17.411.584,72
- Aurrerakinak	507.000,36	507.000,36
- Balioaren narriadura	-6.581.200,32	-6.581.200,32
GUZTIRA	13.726.775,11	13.726.775,11

a) Landa lurrak

Atal honetan landa lur hauen balioa jaso da:

Poligonoa	Azalera (m2)	Balioa (euroak)
- Goiaín	313.402	334.019,56
- Araia	149.610	143.271,20
- Aiara	61.155	53.762,46
- Litutxipi	1.648	3.941,90
- Amurrio	14.225	36.270,07
GUZTIRA		571.265,19

b) Abian diren sustapenak

Hau da abian diren sustapenen banakapena:

Poligonoa	Azalera (m2)	Balioa (euroak)
- Ortuna	12.076,00	124.635,16
- Casablanca	105.735,00	1.693.490,00
GUZTIRA		1.818.125,16

c) Amaitutako produktuak

Epigrafe honetan salgai jartzeko moduan dauden sozietateko lurzatiak jaso dira:

Poligonoa	Azalera (m2)	Euroak
- Goiaín (*)	43.041,00	516.461,01
- Galzar (*)	92.083,00	3.334.948,66
- Subillabide (*)	64.431,00	4.353.129,85
- Casablanca II	49.305,00	5.859.164,59
- Langraiz	30.215,00	2.421.592,17
- Okondo (**)	2.530,00	101.358,54
- Asparrena - Donemiliaga (**)	15.000,00	384.387,10
- Jundiz (**)	3.650,00	246.845,26
- Markijana		193.697,54
GUZTIRA		17.411.584,72

(*) Sustapen amaitua

(**) Salgai dauden lurzatiak eta pabiloak

d) Balio narriadura

Izakinen balio galeragatiko horniduraren helburua da egiten ari diren eta amaituta dauden sustapen jakin batzuen balio garbia haien gauzatze baliora hurbiltzea, balio hori kontabilitate balioa baino txikiagoa dela egiaztatzean.

Narriaduragatiko hornidura honela banakatu da, haren izaera eta kasuan kasuko sustapena kontuan hartuta:

Abian diren sustapenak:	2025	2024
- Langraiz	0,00	0,00
- Casablanca	169.181,00	169.181,00
Guztira	169.181,00	169.181,00
Amaitutako sustapenak:	2024	2024
- Goiaín	535.599,41	535.599,41
- Galzar	208.636,45	208.636,45
- Subillabide	899.174,09	899.174,09
- Casablanca	2.601.298,31	2.601.298,31
- Langraiz	1.466.613,18	1.466.613,18
- Markijana	193.697,52	193.697,52
Guztira	5.905.018,96	5.905.018,96
Aurrerakinak	2024	2024
- 22792 SAUI 2 finka	507.000,36	507.000,36
Guztira	507.000,36	507.000,36
GUZTIRA	6.581.200,32	6.581.200,32

Sustapen esanguratsuenak osatzen dituzten izakinen balioa doitu da, lurzoruaren tasazioan oinarritua, erreferentzia harturik landa lurzoruaren prezioa, Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko Desjabetzeen Zerbitzuak zehaztutakoa. Hona hemen balio doikuntzak, industrialdez industrialde:

- Langraizko industrialdea: San José de los Llanosko industrialdeko 2. sektoreko lurzatiaren egindako balorazioari dagokio. Lurzati horren erosketa prezioak barruan hartzen zituen erosi aurretik egindako azpiegitura obrak, bai eta jada egindako sarbideen kostua ere. Balioa zenbatesteko, kontuan hartu da soilik landa lurren azaleraren prezioa, inolako jarduketarik kontuan hartu gabe. Irizpide horrek oinarritzat hartzen du lurzatiak eskura jarri arte egin behar den urbanizazioaren guztizko kostua, eta kostu hori osorik hartzen du bere barnean urbanizatutako lurzatiaren merkatuko prezioak.
- Casablanca IIko industrialdea: Industrialde horren egoera ikusita, salmenta eragiketei dagokienez, sozietateak aditu independenteek egindako balorazio eguneratua eskatu du, eta dagoeneko urbanizatuta dagoen I. faserako eta urbanizatu gabeko II. faserako tasazio balioa kalkulatu du.
- Galzar eta Subillabide industrialdeak: Kasu honetan kontuan hartu da lursailaren azaleraren balioa, Desjabetze Zerbitzuak ezarritako prezioak sozietatearen jabetzako lurzatiei egotzi beharreko lur azalera gordinari aplikatuz. Ez da urbanizazio kostuaren ondoriozko doikuntzarik egin, kostu eraginkorren arabera egiten da balorazioa.

Goiaingo industrialdeko lurzatiaren balioaren narriadura sortu zen Legutioko Udalarekin irabazizko hirigintza aprobetxamenduaren likidaziorako egin diren akordioen ondorioz, lurzati doan ematea aurreikusten baita.

Markijanako industrialdeko lurzatiari dagokion balio narriadura, berriz, haren merkatuko balioaren zenbatespenaren arabera erregistratu da.

Administratzaileen ustez, egindako doikuntzekin, izakinen partida osatzen duten higiezin balioak egoki zenbatetsita daude, higiezin merkatuaren egungo egoerarekin eta sozietatearen jarduerarekin berarekin lotuta, oinarritzat baitu enpresak sustatzea,

industria ehuna sortuz, lurzoru erreserba baten bitartez. Horrela, izakinen balioari ez diote eragingo sozietateak gauzatu beharreko sustapen politikek. Hona hemen balorazio horri eusten dioten inguruabarrak:

- Lurzoruaren balioa merkatuko egungo prezioaren arabera zenbatetsi da.
- Urbanizazio kostuak, berriz, obrak egin zirenean benetan ordaindutakoak dira.
- Lurzatiaren balioan sartuko ez diren urbanizazioen gastuak zuzendu egin dira.

e) Erosketa konpromisoak.

2008ko urriaren 20an, sozietateak “Valdegovia Sociedad Urbanística y Desarrollo Integral SA” sozietateari Gaubeako arau subsidiarioetako 22796 SAUI-2 finka bat erosteko konpromisoa sinatu zuen.

Kontratu horren arabera, Gaubean 105.181,89 m²-ko lurzatia erosteko konpromisoa hartu zuen. Prezioa: 6,60 euro/m².

507.000,36 euroko aurrerakina ordaindu da, eta gainerakoa eskritura publikoa egitean ordainduko da.

12. OHARRA.- FUNTS PROPIOAK

Epigrafe hau osatzen duten kontuek mugimendu hauek izan dituzte ekitaldian:

	2024				2025		
	Hasierako saldoa	Gehikuntzak	Gutxitzeak	Amaierako saldoa	Gehikuntzak	Gutxitzeak	Amaierako saldoa
- Sozietatearen kapitala	86.508.000,00	0,00	0,00	86.508.000,00	0,00	0,00	86.508.000,00
- Akzio jaulkipen prima	9.472.420,94	0,00	0,00	9.472.420,94	0,00	0,00	9.472.420,94
- Legezko erreserba	1.573.864,40	0,00	0,00	1.573.864,40	0,00	0,00	1.573.864,40
- Erabilgarri ez dagoen erreserba	6,67	0,00	0,00	6,67	0,00	0,00	6,67
- Erreserba bereziak	1.688.526,90	0,00	0,00	1.688.526,90	0,00	0,00	1.688.526,90
- Borondatezko erreserba	21.807,44	0,00	0,00	21.807,44	0,00	0,00	21.807,44
- Emaizta negatiboak	-34.423.408,32	0,00	0,00	-34.423.408,32	689.045,79	-1.488.061,33	-35.222.423,86
- Bazkideen ekarpenak	361.645,79	689.045,79	-361.645,79	689.045,79	819.164,48	-689.045,79	819.164,48
- Galerak eta irabaziak	-361.645,79	361.645,79	-1.488.061,33	-1.488.061,33	627.324,64	1.488.061,33	627.324,64
GUZTIRA	64.841.218,03	1.050.691,58	-1.849.707,12	64.042.202,49	2.135.534,91	-689.045,79	65.488.691,61

- Sozietatearen kapitala 86.508.000,00 eurokoa da, eta erabat harpidetuta eta ordainduta dauden 14.418 akzio izendunek ordezkatzeko dute; horietariko bakoitzak 6.000,00 euroko balio izendatua du. Arabako Foru Aldundiak dauka partaidetza osoa.

Esan behar da Arabako Foru Aldundiak eta Arabako lurralde historikoetako udalek bakarrik izan dezaketela bazkide izaera. Arabako Foru Aldundiaren partaidetza ezin da izan kapital sozialaren % 70 baino txikiagoa.

- Kapital sozietateen Legearen arabera, legezko erreserba, kapital sozialaren % 20 baino gehiago ez den bitartean, ezin zaie banatu akziodunei, eta galeren konpentsaziora bakarrik bideratu ahal izango da, beste erreserba eskuragarririk eduki ezean. Era berean, kapital soziala gehituta % 10 gaingaitzen duen zatian gehitzeko erabili ahal da erreserba hori.
- 2020an erreserba berezi bat ezarri zen enpresa kapitalizazioa sustatzeko, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 37/2013 Foru Arauaren 51. artikuluan araututakoaren arabera. Erreserba hori ezin da erabili gutxienez bost urtez, kenkariari dagokion zergaldia amaitzen denetik aurrera, kapitalari gehitu zaion igoeraren zatian izan ezik.
Aldi horretan, ondarearen zenbatekoak egonkor jarraitu behar du, edo handitu, zerga ondorioetarako, baldin eta kontabilitateko galeren ondorioz murrizketarik gertatzen ez bada. Epea igarotakoan, 2026an borondatezko erreserben kontura pasatuko da.

- Arabako Foru Aldundiko Foru Gobernuaren Kontseiluak, 2024ko urriaren 1ean, erabaki zuen sozietateari 575.299,00 euro esleitzea, ekitaldiko galerak konpentsatzeko.
- Gainera, 113.746,79 euro aplikatu zituen Aiaraldea Proiektuari egotz dakizkiokeen gastuak konpentsatzeko, Arabako Foru Aldundiak 2022an egindako ekarpenetik eratorritakoak.
- 2025eko abuztuaren 1ean, Foru Gobernu Kontseiluak 500/2025 Erabakiaren bidez ebatzi zuen 589.681,00 euro ordaintzea sozietateari, galerak konpentsatzeko. Zenbateko hori osorik aplikatuko zaie aurreko ekitaldietako galerei.
- Gainera, 2025ean 229.483,48 euro erabili dira Aiaraldea Proiektuari egotz dakizkiokeen gastuak konpentsatzeko. Gastu horiek Arabako Foru Aldundiak 2022an Aiaraldea Eskualdeko Berehalako Jarduketa Planaren ekimenak finantzatzeko Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 8ko 667/2022 Erabakiaren bidez egindako ekarpenetik datoz, eta 1.650.000,00 euro dira guztira. Ekitaldiaren itxieran, ekarpen horren 1.265.687,70 euro daude gauzatzeke. Zenbateko hori egoera balantzearen epe luzeko pasibo galdagarrian erregistratuta dago.

13. OHARRA.- DIRULAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK

Sozietateak jasotako dirulaguntzei, dohaintzei eta legatuei buruzko informazioa eta haietatik datozen galera-irabazien kontuari egotzitako emaitzak hauek dira:

	Euroak
Saldoa 2023.12.31n	10.923.885,09
- 2024an emandako dirulaguntzak eta dohaintzak	489.098,00
- Emaitei egotzitako zenbatekoa	-572.673,80
Saldoa 2024.12.31n	10.840.309,29
- 2025ean emandako dirulaguntzak eta dohaintzak	474.397,00
- Emaitei egotzitako zenbatekoa	-483.877,32
Saldoa 2025.12.31n	10.830.828,97

Partida honek jasotzen du:

	Jatorrizko zenbatekoa	Emaitzetara intsuldatzea	Saldoa 2024.12.31n
- Doako erabilpen lagapena - Fernando Buesa Arena pabiloia	2.967.354,15	-699.473,76	2.267.880,39
- Kapitala handitzeko ekarpena - CTV	4.529.977,40	-2.385.443,89	2.144.533,51
- Kapitala handitzeko ekarpena - APT	7.258.062,50	-2.125.287,85	5.132.774,65
- Subillabideko eraikina egiteko finantzaketa	2.500.000,00	-1.250.000,00	1.250.000,00
- Aldalur Araba SLren landa finken gozamina	52.849,50	-17.209,08	35.640,42
GUZTIRA	17.308.243,55	-6.477.414,58	10.830.828,97

- 2022ko ekainaren 14an, Foru Gobernu Kontseiluak Fernando Buesa Arena pabiloia ustiatzeko beste doako lagapen bat egitea erabaki zuen. Lagapenaren iraupena hamabost urtekoa da, 2022ko abenduaren 31tik aurrera, abenduaren 30eko 925/2010 Erabakiaren bidez onetsitako lagapenaren indarraldia amaitu ondoren. Lagapen aldian lortu beharreko errenten zenbateko eguneratuaren arabera baloratu da. Emaitei aplikatzen zaie, aktiboaren amortizazioaren arabera, eta ekitaldian 233.062,32 euro aplikatu dira.
- Arabako Foru Aldundiak 2013ko ekitaldian erabaki zuen 1.132.524,40 euroko ekarpena egitea sozietateari, CTV - Gasteizko Garraio Zentroa SAREN kapitala gehitzean sozietateak harpidetutako akzioen ordainketa finantzatzeko.

Era berean, Arabako Foru Aldundiak 2014ko ekitaldian erabaki zuen 906.000,00 euroko ekarpena egitea sozietateari, CTV - Gasteizko Garraio Zentroa SArekin kapitala gehitzean sozietateak harpidetutako akzioen ordainketa finantzatzeko.

2015ean 1.132.500,00 euro izendatu ditu, guztira, CTV - Gasteizko Garraio Zentroa SArekin kapital gehikuntzan harpidetutako akzioengatik ekitaldian egin beharreko ordainketa finantzatzeko.

2016an 1.358.953,00 euro izendatu ditu, guztira, 2015ean CTV - Gasteizko Garraio Zentroa SArekin kapital gehikuntzan harpidetutako akzioengatik 2016ko ekitaldian egin beharreko ordainketa finantzatzeko.

Emaitei aplikatzen zaie, parte-hartzeak ekitaldietan izandako balio galeraren arabera, baina ekitaldian ez da inolako zenbatekorik aplikatu.

- Arabako Foru Aldundiko Foru Gobernu Kontseiluak, 2014ko abenduaren 23an, Subillabide industrialdean industria pabiloi baten eraikuntza finantzatzeko 2.500.000,00 euro esleitzea erabaki zuen; geroago, 2015eko ekainaren 2an, erabaki hori aldatu egin zuen. Emaitei finantzatzutako aktiboaren amortizazioaren eta balio narriaduraren arabera aplikatu zaie, eta 2025ean 125.000,00 euro izan da.
- Foru Gobernu Kontseiluak zenbait erabaki eman ditu bata bestearen segidan, Arabako Teknologi Parkea SA sozietateak 2016an egindako 762.300,00 euroko kapital gehikuntzan harpidetutako akzioak ordaintzeko sozietateari emandako maileguaren amortizazioa eta interesak ordaintzeko finantzaketarako dirulaguntza emateko. Emaitei aplikatzen zaie partaidetzaren balio galeraren arabera. 2025ean ez zaie inolako zenbatekorik aplikatu emaitzei.
- Foru Gobernu Kontseiluak, 2017ko urriaren 3an, erabaki zuen sozietateari 750.000,00 euroko ekarpena egitea, Arabako Teknologi Parkea SA sozietateak ekitaldian egin zuen kapital gehikuntzan harpidetutako akzioen ordainketa finantzatzeko. Emaitei aplikatzen zaie partaidetzaren balio galeraren arabera. 2025ean ez zaie inolako zenbatekorik aplikatu emaitzei.
- Foru Gobernu Kontseiluak, 2018ko abenduaren 3an, erabaki zuen sozietateari 749.950,00 euroko ekarpena egitea, Arabako Teknologi Parkea SA sozietateak ekitaldian egin zuen kapital gehikuntzan harpidetutako akzioen ordainketa finantzatzeko. Emaitei aplikatzen zaie partaidetzaren balio galeraren arabera. 2025ean ez zaie inolako zenbatekorik aplikatu emaitzei.
- Foru Gobernu Kontseiluak, 2019ko azaroaren 19an, erabaki zuen sozietateari 749.950,00 euroko ekarpena egitea, Arabako Teknologi Parkea SA sozietateak ekitaldian egin zuen kapital gehikuntzan harpidetutako akzioen ordainketa finantzatzeko. Emaitei aplikatzen zaie partaidetzaren balio galeraren arabera. Emaitei partaidetzaren balio galeraren arabera aplikatu zaie; 2025ean ez zaie inolako zenbatekorik aplikatu emaitzei.
- Foru Gobernu Kontseiluak, 2020ko abenduaren 22an, erabaki zuen sozietateari 749.995,00 euroko ekarpena egitea, Arabako Teknologi Parkea SA sozietateak ekitaldian egin zuen kapital gehikuntzan harpidetutako akzioen ordainketa finantzatzeko. Emaitei aplikatzen zaie partaidetzaren balio galeraren arabera. 2025ean ez zaie inolako zenbatekorik aplikatu emaitzei.
- Foru Gobernu Kontseiluak, 2021eko azaroaren 16an, erabaki zuen sozietateari 749.995,00 euroko ekarpena egitea, Arabako Teknologi Parkea SA sozietateak ekitaldian egin zuen kapital gehikuntzan harpidetutako akzioen ordainketa finantzatzeko. Emaitei partaidetzaren balio galeraren arabera aplikatu zaie; 2025ean ez zaie inolako zenbatekorik aplikatu emaitzei.
- Foru Gobernu Kontseiluak, 2022ko abenduaren 27an, erabaki zuen sozietateari 749.995,00 euroko ekarpena egitea, Arabako Teknologi Parkea SA sozietateak ekitaldian egin zuen kapital gehikuntzan harpidetutako akzioen ordainketa finantzatzeko. Emaitei partaidetzaren balio galeraren arabera aplikatu zaie; 2025ean ez zaie inolako zenbatekorik aplikatu emaitzei.
- Foru Gobernu Kontseiluak, 2023ko abenduaren 5ean, erabaki zuen sozietateari 489.098,00 euroko ekarpena egitea, Arabako Parke Teknologikoa SA sozietateak ekitaldian egin zuen kapital gehikuntzan harpidetutako akzioen ordainketa finantzatzeko. Emaitei aplikatzen zaie partaidetzaren balio galeraren arabera. Ekitaldiko emaitzei 8.454,31 euro aplikatu zaizkie.
- Foru Gobernu Kontseiluak, 2023ko abenduaren 26an, erabaki zuen sozietateari 538.142,00 euroko ekarpena egitea, Arabako Parke Teknologikoa SA sozietateak 2024ko ekitaldian egin zuen kapital gehikuntzan harpidetutako akzioen ordainketa finantzatzeko. Ekitaldiko emaitzei 9.302,07 euro aplikatu zaizkie.

- Foru Gobernu Kontseiluak, 2024ko urriaren 15ean, erabaki zuen sozietateari 489.098,00 euroko ekarpena egitea, Arabako Parke Teknologikoa SA sozietateak 2024ko ekitaldian egin zuen kapital gehikuntzan harpidetutako akzioen ordainketa finantzatzeko. Ekitaldiko emaitzei 8.454,31 euro aplikatu zaizkie
- Foru Gobernu Kontseiluak 2025eko uztailaren 29an erabaki zuen sozietateari 474.397,00 euroko ekarpena egitea, Arabako Parke Teknologikoa SA sozietateak 2025eko ekitaldian egin zuen kapital gehikuntzan harpidetutako akzioen ordainketa finantzatzeko. Ekitaldiko emaitzei 105.179,39 euro aplikatu zaizkie
- Aldalur Araba SL sozietatea xurgapen bidez bat egitearen ondorioz, Arabako Foru Aldundiak landa finka jakin batzuen gozamina sozietate horri lagatzaren ondorioa gehitu zen, 52.823,10 eurotan. Ekitaldiko emaitzei 2.458,44 euro aplikatu zaizkie.

14 OHARRA.- HORNIDURAK ETA KONTINGENTZIAK

Epe luzerako hornidurak

Horniduren kontuek honako bilakaera hau izan dute epe luzera:

	2024				2025		
	Hasierako saldoa	Altak	Bajak	Amaierako saldoa	Altak	Bajak	Amaierako saldoa
- Bestelako erantzukizunetarako hornidurak	255.483,39	25.000,00	0,00	280.483,39	25.000,00		305.483,39
GUZTIRA	255.483,39	25.000,00	0,00	280.483,39	25.000,00	0,00	305.483,39

Hauek dira arrisku hornituak:

- Legutioko Udalarekin adostutako ordainketa, 216.037,11 eurokoa, entitate horrek Goiaingo industrialdea hartzean.
- Laudioko lurren ekarpenak, 14.446,28 eurokoak.
- Izarreko lurren ordainketa geroratuko kanona, 75.000,00 eurokoa.

15. OHARRA.- EGOERA FISKALA

Administrazio publikoarekiko saldoak 2024ko abenduaren 31n eta 2025eko abenduaren 31n, zerga izaeradunak, honako hauek izan dira:

	2025	2024
Saldo zorduna	7.127,25	40.936,18
- Zorduna BEZagatik	0,00	37.090,14
- Atxikipenak eta konturako ordainketak	7.127,25	3.846,04
Saldo hartzekoduna	58.405,57	52.566,07
- Hartzekoduna PFEZagatik	21.398,57	22.179,20
- Hartzekoduna BEZagatik	25.528,02	14.521,21
- Gizarte Segurantza	11.478,98	15.865,66

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren mende dago sozietatea (2013ko abenduaren 27ko ALHAO). 2024ko ekitaldiko zergaren likidazioa hau izan zen:

	Euroak
Emaiza zergak aplikatu aurretik	-1.488.061,33
Zerga oinarria	-1.488.061,33
- Karga tasa	% 24,00
Kuota osoa	0,00
- Kuotaren kenkariak	0,00
Kuota likidoa	0,00

Hurrengo ekitaldietan konpentsatzeko dauden zerga oinarri negatiboak 71.583.178,70 euro dira.

2025eko ekitaldiko zergaren likidazioa hau da:

	Euroak
Emaiza zergak aplikatu aurretik	451.690,41
Aurreko ekitaldietako zerga oinarrien konpentsazioa	-225.845,21
Zerga oinarria	225.845,20
- Karga tasa	% 24,00
Kuota osoa	54.202,85
- Zergapetze bikoitzeko kenkaria	-54.202,85
Kuota likidoa	0,00

Sozietateak sozietateen gaineko zergaren zergapetze bikoitzagatik kenkaria aplikatzen du ekitaldian jasotako dibidenduengatik, 2.528.800,85 euro izan baitira. Aplikatzeko dagoen gainerako zenbatekoa, 552.709,35 eurokoa, etorkizuneko ekitaldietan aplikatu ahal izango da. Hurrengo ekitaldietan konpentsatzeko dauden zerga oinarri negatiboak 71.583.178,70 euro dira.

Sozietateari aplikagarriak zaizkion zerga nagusien azken bost ekitaldietako ikuskapena oraindik ez dute egin zerga agintariek.

Indarrean dauden lege xedapenen arabera, zergen likidazioak ezin dira behin betikotzat jo harik eta zerga agintariek ikuskatu arte edo egun ezarrita dagoen lau urteko preskripzio epealdia igaro arte. Sozietateak azken lau ekitaldiak irekita ditu aplikatu dakizkiokeen zerga

guztiak ikuskatzeko. Sozietatearen administratzaileen iritziz, ikuskapenik egitekotan, ez litzateke egongo zenbateko handiko zerga kontingentziarik sozietateari aplika dakiokkeen zerga araudia modu ezberdinean interpretatzeagatik.

16. OHARRA.- DIRU SARRERAK ETA GASTUAK

a) Diru sarrerak

a.1) Negozio zifraren zenbateko garbia

Partida honek kontzeptu hauek jasotzen ditu:

	2025	2024
- Industria pabiloien alokairua	716.912,46	777.874,84
GUZTIRA	716.912,46	777.874,84

a.2) Ustiapeneko beste diru sarrera batzuk

Kontu honek ondoko kontzeptuak dauzka:

	2025	2024
- Errentamenduak	269.440,00	269.440,00
- Ur harguneetako eskubideak eta hornidurak	747.991,74	602.374,57
- Industrialdeak mantentzea	238.647,98	278.696,71
- Zenbait diru sarrera	89.537,58	82.475,74
GUZTIRA	1.345.617,30	1.232.987,02

Ekitaldi honetan, sozietateak lurzatie jakabeei jasanarazi dizkie Goian, Asparrena, Casablanca II eta Los Llanos I eta II industrialdeak mantentzeko izandako gastu komunak.

b) Gastuak

b.1) Ustiapeneko beste gastu batzuk

"Kanpoko zerbitzuak" izeneko partidaren honako kontzeptu hauek sartzen dira:

	2025	2024
- Errentamenduak	25.986,16	25.986,16
- Konponketak eta kontserbazioa	523.393,67	425.290,53
- Zerbitzu profesional eta independenteak	222.550,22	105.607,82
- Garraioak	122,44	188,86
- Aseguru primak	51.636,98	53.077,24
- Banku zerbitzuak	252,24	66,64
- Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak	372.000,00	314.500,00
- Hornidurak	1.151.361,42	1.081.885,97
- Beste zerbitzu batzuk	57.367,16	54.130,37
GUZTIRA	2.404.670,29	2.060.733,59

b.2) Langile gastuak

Hona hemen langileen gastuen xehetasunak:

	2025	2024
- Lansariak, soldatak eta asimilatuak	614.927,22	582.590,29
- Enpresaren konturako gizarte segurantz	162.085,23	147.711,39
- Epe luzeko ordainketak, ekarpen definituko sistemaren bitartez	15.079,68	13.726,17
GUZTIRA	792.092,13	744.027,85

Abenduaren 2ko 14/2025 Errege Lege Dekretuaren bitartez ordainsarien arloko premiazko neurriak onesten dira sektore publikoaren esparruan. Horren lehenengo artikuluan ezartzen zen sektore publikoko langileen ordainsarien gehikuntza 2025. urterako % 2.5ekoa izango zela, 2024ko abenduaren 31ko ordainsariak erreferentziatzat hartuta. Administrazio Kontseiluak, 2026ko otsailaren 17ko bilkuran, urteko kontuak onetsi aurretik, soldata-igoera hori onetsi du. Erabaki horretan oinarrituta, sozietateak gauzatu gabeko soldata-igoera hori jaso du bere kontabilitate erregistroetan: 15.129,32 €.

c) Beste emaitza batzuk

c.1) Ibilgetuaren narriadurak eta ondasun higiezinak inbertsioak

Sozietateak 123.176,40 euroko balio narriadura izan du ondasun higiezinak inbertsioetan (120.300,13 euro 2024an). Bestalde, ondasun higiezinak inbertsioen balio narriadura itzuli egin da (74.192,33 euro).

c.2) Ibilgetuaren salmentak mozkina

89.358,70 euroko emaitza positiboa lortu da Ondasun higiezinak inbertsioak partidako higiezin baten salmentan.

c.2) Finantza emaitza

Finantza emaitza kontzeptu hauek osatzen dute:

Diru sarrera finantzarioak	2025	2024
- Dibidenduak	2.528.800,85	0,00
- Interesak	37.501,03	0,00
- Geroratutako ordainketen interesak	54.276,71	88.381,42
GUZTIRA	2.620.578,59	88.381,42

Finantza gastuak	2025	2024
- Maileguen interesak	25.942,01	54.663,51
GUZTIRA	25.942,01	54.663,51

Araba Logística SA partaidetzako sozietateak 2.528.800,85 euroko dibidendua ordaindu du ekitaldian, erabilera libreko erreserben kontura.

Partaidetzen narriaduraren aldaketak eragindako emaitza negatibo garbia 167.538,61 eurokoa izan da. 2024an Partaidetzen narriaduraren aldaketak eragindako emaitza negatibo garbia 130.353,24 eurokoa izan da.

17. OHARRA.- INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA

Ez dago ingurumena babesteari eta hobetzeari lotutako arriskurik.

Bestalde, ez dago negutegi efektuko gasak isurtzeko eskubideetatik eratorritako inolako eskubide, sarrera, gastu edo kontingentziarik.

18. OHARRA.- ERAGIKETAK, LOTUTAKO ENPRESEKIN

Sozietateak eragiketa hauek egin ditu lotutako enpresekin:

18.1. *Eragiketak Arabako Foru Aldundia bazkidearekin*

Arabako Foru Aldundia bazkidearekin egindako eragiketak honako hauek izan dira:

18.1.1. *Finantzaketa eragiketak (baliabide propioetara ekarpenak egitea)*

2024an:

- Ekitaldiko galerak konpentsatzeko ekarpena: 575.299,00 euro.

2025ean:

- Ekitaldiko galerak konpentsatzeko ekarpena: 589.681,00 euro.

18.1.2. *Jasotako dirulaguntzak*

2024an:

- Arabako Teknologia Parkea SArek kapital gehikuntzan sozietateak harpidetutako akzioak ordaintzeko 489.098,00 euroko ekarpena, 2024an ordaindua.

2025ean:

- Arabako Teknologia Parkea SA sozietatearen kapitala gehitzean sozietateak harpidetutako akzioen ordainketa finantzatzeko ekarpena, 474.397,00 euro.

18.2. *Saldoak Arabako Foru Aldundia bazkidearekin*

18.2.1. *Saldo zordunak*

2024ko abenduaren 31n:

- Sozietatearen titulartasuneko kontu bereziaren saldo zorduna, zeina Arabako Foru Aldundiko kontu orokorretan baitago sartua, 5.035.562,93 euro da.

2025eko abenduaren 31n:

- Sozietatearen titulartasuneko kontu bereziaren saldo zorduna, zeina Arabako Foru Aldundiko kontu orokorretan baitago sartua, 4.799.640,93 euro da.

18.2.2. Saldo hartzekodunak

2024ko abenduaren 31n:

- Bazkideen ekarpenagatik oraindik gauzatu gabeko pasiboak: 1.495.271,18 euro.

2025eko abenduaren 31n:

- Bazkideen ekarpenagatik oraindik gauzatu gabeko pasiboak: 1.265.787,70 euro.

18.3. Abalak eta bermeak

- Abala Banco de Santander Central-Hispano SA entitatearen aurrean, emandako 4.000.000,00 euroko maileguaren berme gisa; ekitaldiko itxierako saldoa 609.759,48 eurokoa da.

18.4. Eragiketak taldeko enpresekin

18.4.1. Inbertsio eragiketak

2024an:

- 489.098,00 euroko kopurua eman da eskudirutan, 2024an Arabako Parke Teknologikoa SA sozietatearen kapitala gehitzean harpidetutako akzioengatik.

2025ean:

- 474.397,00 euroko kopurua eman da eskudirutan, 2025ean Arabako Parke Teknologikoa SA sozietatearen kapitala gehitzean harpidetutako akzioengatik.

18.4.2. Saldoa taldeko enpresekin

Saldo hartzekodunak

2024ko abenduaren 31n

2024ko abenduaren 31n, sozietateak ez zien ezer zor taldeko sozietateei.

2025eko abenduaren 31n

2025eko abenduaren 31n, sozietateak ez zien ezer zor taldeko sozietateei.

18.5. Abalak eta bermeak

2025eko abenduaren 31n, sozietateak ez zuen abalik emanda lotutako beste sozietate batzuei.

18.6. Eragiketak eta saldoak lotutako beste enpresa batzuekin

18.6.1. Eragiketak beste enpresa batzuekin

2024an:

- Arabako Kalkulugunea SA sozietateak 11.502,00 euroko zerbitzuak eskaini zizkion sozietateari 2024an.
- Indesa 2010 SL sozietateak 166.057,62 euroko zerbitzuak eman zizkion sozietateari 2024an, bi entitateek sinatutako enkarguei jarraikiz.

2025ean:

- Arabako Kalkulugunea SA sozietateak 11.502,00 euroko zerbitzuak eman zizkion sozietateari 2025ean.
- Indesa 2010 SL sozietateak 149.467,27 euroko zerbitzuak eman zizkion sozietateari 2025ean, bi entitateek sinatutako enkarguei jarraikiz.

18.7. Bestelako eragiketa batzuk

2018ko azaroaz geroztik, Arabako Foru Aldundiari laga zaio, hamar urterako eta kontraprestaziorik gabe, Gasteizko Artapadura kaleko industrialdean dagoen industria pabiloi bat; 165.910,90 euroko kontabilitate balio garbia du.

Añanako Gatz Harana Fundazioari laga zaizkio, kontraprestaziorik gabe, Gasteizko Subillabideko industrialdean dauden hiru industria pabiloi; 261.933,58 euroko kontabilitate balio garbia dute.

Arabako Foru Aldundiak kontraprestaziorik gabe laga du Fernando Buesa Arena pabiloiaren erabilera, eta lagapena 2.967.354,15 eurotan balioetsi du.

19. OHARRA.- BESTELAKO INFORMAZIOA

a) Administrazio Kontseiluko kideen ordainsariak

Ez da batere kargurik sortu Administrazio Kontseiluko kideen soldata, dieta eta ordainsarien kontzeptuarengatik.

b) Goi zuzendaritzako kideen ordainsariak

Goi zuzendaritzako langileek ekitaldian jaso dituzten ordainsariak guztira 93.440,18 euro izan dira 2024an, eta 89.272,08 euro 2025ean.

c) Abalak

Gordailuan dauden abalen laburpena, izaeraren arabera:

	2025	2024
- Kontratutako obra eta zerbitzuengatik	776.653,97	891.388,52
GUZTIRA	776.653,97	891.388,52

d) Personal

2024an eta 2025ean, batez beste, ondoko langile kopuruak izan dira:

	2025		2024	
Kategoria	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
- Kudeatzailea	1,00	0,00	0,91	0,00
- Goi mailako teknikariak	1,00	5,77	1,00	5,56
- Erdi mailako teknikariak	0,00	1,00	0,00	1,00
GUZTIRA	2,00	6,77	1,91	6,56

Bestalde, plantillan ez dago desgaitasuna duen langilerik.

Ekitaldia bukatutakoan langile kopurua honako hau izan zen:

	2025		2024	
Kategoria	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
- Kudeatzailea	1,00	0,00	1,00	0,00
- Teknikariak	1,00	6,00	1,00	5,00
- Erdi mailako teknikariak	0,00	1,00	0,00	1,00
GUZTIRA	2,00	7,00	2,00	6,00

e) Auditoreen ordainsaria

BNFIX KLZ AUDITORES SLP enpresak 7.000,00 euroko ordainsaria jaso du 2025ean, auditoria zerbitzuengatik. 2024ko ekitaldian 7.000,00 euro jaso zituen. Ordainsari horiek Arabako Foru Aldundiak ordaindu ditu.

f) Kapital Sozietateen Legearen 229 artikuluan aipatzen diren interes-gatazken egoerak

Araba Garapen Agentzia SAU sozietateko administrariak edo hari lotutako pertsonak ez dute jakinarazi sozietatearekin zuzeneko edo zeharkako gatazka egoerarik dutenik, Kapital sozietateei buruzko Legearen 229. artikulua agintzen duenez.

20. OHARRA. EKITALDIAN HORNITZAILEEI GERORATU ZAIZKIEN ORDAINKETEI BURUZKO INFORMAZIOA

Hau da merkataritza eragiketetan hornitzaileei geroratu zaizkien ordainketen inguruko informazioa:

	2025eko ekitaldia	2024ko ekitaldia
	Egunak	Egunak
Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia	5,76	6,42
Ordaindutako eragiketen ratioa	5,78	6,42
Ordaintzeke dauden eragiketen ratioa	0	0

	Zenbatekoa (eurotan)	Zenbatekoa (eurotan)
Egindako ordainketak, guztira	3.745.552,39	3.200.649,22
Ordaintzeke daudenak, guztira	3.062,40	0,00

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea kalkulatzeko metodologia ekonomikoa Administrazio Publikoen hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea kalkulatzeko metodologia garatzen duen uztailaren 25eko 635/2014 Errege Dekretuan zehaztutakoa da (abenduaren 22ko 1040/2017 Errege Dekretuak aldatu zuen).

2025ean zehar, berankortasun araudian ezarritako gehienekoa baino epe laburragoan ordaindutako fakturen zenbatekoa 3.745.552,39 eurokoa izan zen (ordaindutako faktura guztien % 100), hau da, 656 faktura (ordaindutako faktura guztien % 100).

21. OHARRA.- LANGILEEI BURUZKO DATUAK ETA ARABAKO FORU ALDUNDIAREN EKARPENAK

LANGILEEN DATUAK ETA AFA-KO EKARPENAK	DATOS DE PERSONAL Y APORTACIONES DE D.F.A.	2025	2024
Langile kostua	Coste personal	90.318,37	87.842,72
Lagile gastuak	Gastos de personal	792.092,13	744.027,85
Langileak	Plantilla	8,77	8,47
AFaren dirulaguntzak	Aportaciones DFA	1.064.078,00	1.064.397,00
Kapital dirulaguntzak	Subvenciones de capital	474.397,00	489.098,00
Ustiapen dirulaguntzak	Subvenciones a la explotación	0,00	0,00
Ondare ekarpenak	Aportaciones patrimoniales	589.681,00	575.299,00
Kapital gehikuntzak	Ampliaciones de capital	0,00	0,00

ARABA GARAPEN AGENTZIA SAU

KUDEAKETA TXOSTENA - 2025EKO EKITALDIA

Sozietateak bere ohiko jarduera gauzatu du ekitaldi honetan, eta Goiaín, Casablanca II, Los Llanos 1 eta 2, eta Asparrena industrialdeen kudeaketara, Subillabideko industria pabiloien sustapenera eta higiezin errentamendura mugatu da. Gainera, Fernando Buesa Arena pabiloiaren errentamendua kudeatzen du, Arabako Foru Aldundiak laga duena erabilia izan dadin. Halaber, Tubos Reunidos Premium Threads sozietatearentzat industria pabiloi bat alokatzea barne hartzen du, 14.915 m²-ko nabe bat eta 284 m²-ko bulegoak dituen, 31.381 m²-ko lurzati baten gainean, Subillabide industrialdean. Horrela, 2.061.401,76 euroko ustiapeneko diru sarrerak lortu ditu; horietatik, 716.912,46 euro errentamenduei dagozkie, eta 1.344.489,30 euro industrialdeen kudeaketarekin lotutako zerbitzuak emateari. Gainera, Subillabide industrialdeko sustapeneko industria pabiloi bat saldu du, eta 89.358,70 euroko emaitza positiboa izan du.

Gastuei dagokienez, horiek guztiak jardueraren egituraren berezko gastuei dagozkie, eta agerian geratzen da ustiapen-emaitza negatiboa – 1.799.733,33 eurokoa izan dela, aurreko ekitaldikoa baino handiagoa, higiezin mantentze gastuak direla eta. Aiaraldea Proiektuarekin lotutako gastuen zati bat (229.483,48 euro) Arabako Foru Aldundiak 2022an helburu horretarako egindako ekarpenarekin finantzatu da.

Ekitaldian, Araba Logística SA sozietateak dibidendu bat ordaindu du erabilera libreko erreserbak banatuz. Hori dela eta, Araba Garapen Agentzia SAUk 2.528.800,85 euroko dibidendua lortu du.

Horrela, 2.427.097,97 euroko finantza emaitza positiboak lortuta, sozietateak 627.324,64 euroko emaitza positiboak lortu ditu.

Ekitaldi honetan, Aiaraldea proiektua gauzatzen jarraitu da. Proiektu horretan, Aiaraldea eskualdea biziberritzeko eta suspertzeko ekintza batzuk ezarriko dira 2023tik 2026ra bitartean, 1.650.000,00 euroko aurrekontuarekin, eta Arabako Foru Aldundiak egindako ekarpenaren bidez finantzatuko da. Ekitaldi honetan gauzatutako zenbatekoa 229.483,48 euro izan da.

Beste sozietate batzuetako partaidetzari dagokionez, Arabako Parke Teknologikoa SA sozietatearen 7.777 akzio harpidetu eta ordaindu dira: 474.397,00 euro guztira. Ekarpene hori Arabako Foru Aldundiak finantzatu du. Arabako Industrialdea S.A., CTV Gasteizko Garraio Zentroa SA eta Araba Logística SA sozietateen partaidetzari eutsi zaio.

Arabako Teknologia Parkea SA sozietatean parte hartzeagatik ekitaldian izandako balio galera 351.558,99 eurokoa izan da. Narriadurak lehengoratu ditu beste partaidetza batzuen balio galerengatik (184.019,98 euro).

Inbertsioei dagokienez, ez dira eskuratu norberaren erabilerarako aktibo esanguratsurik. Landazuri kaleko 13. zenbakian dagoen higiezin bat erosteko aukera ematen duen errentamendu bat baino ez da sinatu, sozietatearen instalazioak handitu eta jarduera berriak garatzeko.

Ekitaldi honetan ez da I+G jarduerarik garatu.

Hurrengo ekitaldian jarduera handitzea eta sozietatearen jabetzako industria lurzatiak saltzeko eragiketarik egitea aurreikusi da, baita industrialdeak kudeatzeko jarduerarekin jarraitzea ere. Era berean, Aiaraldea proiektua gauzatzen jarraitzea aurreikusten da.

Gainera, aurreikusita dago Goiaingo industrialdeko hondakin uren araztegia eraikitzeko proiektua gauzatzea eta hondakin urak arazteko zerbitzua gauzatzeko dagokion hitzarmena sinatzea.

Era berean, Arabako Lurralde Historikoan etxebizitzak sustatzeko jarduerari ekitea aurreikusten da.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 27a.

ARABA GARAPEN AGENTZIA SAU (pertsona bakarreko sozietatea) sozietateko kudeatzaileek, Kapital sozietateen Legearen 253. artikuluan eta Merkataritza Erregistroko Araudiko 330. artikuluan ezarritakoan betez, eta ados daudela agertzeko, 2025eko Urteko Kontuak eta Kudeaketa Txostena (1. eta 52. orrialdeetan jasotakoak) sinatu dituzte, Vitoria-Gasteizen, 2026ko martxoaren 27an.

Saray Zárate Fernández de Landa
Lehendakaria

Inés Vadillo Alzola
Idazkaria (ez da kontseilukidea)

Javier Gorbeña García
Kontseilukidea

Itziar Gonzalo de Zuazo
Kontseilukidea

Laura Pérez Borinaga
Kontseilukidea

Ander Larrinaga Saiz
Kontseilukidea

Eduardo Aguinaco López de Suso
Kontseilukidea

Iñaki Arrizabalaga Ormaechea
Kontseilukidea

Noemi Aguirre Quintana
Kontseilukidea

Cristina González Calvar
Kontseilukidea

Jon Anda Lazpita
Kontseilukidea